


"Ume, gazte, helduak
nagusi, gaixoak
bostak izan dodaz nik
landuta arloak.
Hazi garbia erein
luzatuz besoak,
adi zer ekarriko
Aitaren soloak."

N Martzel Andrinua NERE BIZITZAKO JOAN-ETORRIAK

NIRE BIZITZAKO JOAN-ETORRIAK

- 1.- UME ETA GAZTAROKO LORRATZAK
- 2.- HASIERAKO HEGAZKADAK
- 3.- JESUS KURUTZEKOAREN ONDOKO LANDARAK
- 4.- “UME LAPURRETAN”
- 5.- BILBOKO LEHENENGO EUSKAL MEZA
- 6.- BILBOKO SANTOS JOANES ELEIZAN EUSKERAZ MISINOAK
- 7.- BERTSOLARI TXAPELKETAK
- 8.- EUSKALTZAIN URGAZLE
- 9.- EUBAKO EUSKAL JAIK
- 10.- ARRATE IRRATIA
- 11- MISINO SANTUAK
- 12.-GASTEIZKO SEMINARIORA ARGI BILA
- 13.- MUNDU HOBE BATEN ALDEKO MOBIMENTUA
- 14.- ANAI ARTEKO ARDURADUN
- 15.- ANTONIO AÑOVEROS JAUNA BILBOKO GOTZAINA
- 16.- BETI AURRERA
- 17.- JUAN MARI URIARTE
- 18.- LURRALDEKO GOTZAIN BIKARIOA
- 18.- FRIAS-KO UDALEKUAK
- 19.- LEHENENGO EUSKAL BIBLIA
- 20.- LUIS MARIA LARREA JAUNA BILBOKO GOTZAINA
- 21.- EUSKAL KATEKESIAREN KERIZPEAN LEHENENGO IKASTOLAK
- 22.- GOGOETA ASTEA
- 23.- ELEIZ KARGUA PARROKIAN HARTU DABEN LEHENENGO LAIKAK:
- 24.- BASERRI ALDEKO PASTORAL ESPERIENTZIA
- 25.-VASI GURE ERRUSIAKO LAGUNA
- 26.-MAÑARIA ETA IZURTZAKO AGURRA
- 27.- MEZEA “A 100 POR HORA”
- 28.- BIZKAIA IRRATIA
- 29.- URTEAN ZEHAR EGUNEROKO SANTUAK
- 30.- BIZIAN GORA JUBILATUEN ALDEKO MOBIMENTUA
- 31.-NIRE LABAKO OPILAK
- 32.- PRAILE ALKARTEAK ETA HERRIAK BATERAKO OMENALDIA
- 33.- MUNDU OSOARI BEGIRA
- 34.- “KARMELO ETXENAGUSIA” SARIA. OHOREZKO AITAMENA
- 35.- OHOREZKO EUSKALTZAIN
- 36.- EGINDAKO BIDEARI BEGIRA

NIRE BIZITZAKO JOAN-ETORRIAK



UME ETA GAZTAROKO LORRATZAK

Erreka danak dira sorreran txikiak, ibilian ibilian egiten dira haundi. Eta bakotzak egiten dau bere bidea, batean zarataka, bestean isilik; bidean doan bitartean mila eratako mesedeak, eta tarteka kalteren batzuek eginez. Jaio, Bolibarren jaio nintzan eta hangoa naz, baina herriz Markina-Xemeingoa. Iruzubietako auzotarra, hiru zubi, hiru bide eta hiru erreka daukazan auzokoa. Bertako eskolan ikasi genduan apurra erderaz izan zan. Ez genduan hutsik egiten bandera aurrean errezkadan ipini, eskua gora jaso eta zarata haundiz “Arriba España” abesten, auzoko txakurrak zaunkaka ipinteraino. Behin baino gehiagotan berotu eta mindu euskuezan hatzamarrak puntaz punta jarrita, zigorkada batzuk emonaz, euskeraz egiten gendualako. Pedro eta Teresaren etxean zortzi seme-alaba jaio ginan, ni hirugarrena. Orduan mendian sortutako errekatxoa orain itsasora heltzear dagoala, bide luzeko gora-beherak gogoratu eta bata besteagaz lotzeko aukera heldu jat. Hainbeste lekutan egin deuste eskabide bardina: Aita Martzel, zergaitik ez dozuz idazten zure bizitzako gora-beherak. Ekin eta ekin, azkenean hemen naukazue eskabide horri zeozelan erantzunez. Alde batetik Jaunari eskerrak emoteko, hain bide luzean astakeri gitxi eta zerbitzu lan gehiago egin dodazalako. Ez daukat inondik inora harrotzeko errazoirik: dana Jaunari zor deutsot, eta Haren izenean egindako bidean, lagun asko izan dodaz auzolanean era askotara.

Dana dala, 1941an hamabi urte bete bezperan, Gabirian sartu zan mutiko ha aurrera doala: Gabirian bost urte latina eta erdera ikasiaz; baina egia esan, - harrokeriz esan be Jauna nigaz eskuzabal izan dalako- hiru-lau urtean EUSKERAZ be ikasi genduan. (Orduan hau “pekatu” egitea izan arren, haundiagorik egon dogu...). Ondoren Angostora, urte ta erdian praile bizitzaz

jabetzeko eta botoak eginaz Jaunari baietz emoteko. Beste lau Tafallan Filosofia eta abarrez buruak freskatzako eta azkenik Urretxun teologiaz eta Bibliaz buru-bihotzak argitu eta berotzeko. A zelango egun pozgarria Urretxuko eleiz barrian, 18 praile gazte meza barria emoten! Lekutan gagoz gaur gu! Egi osoa esatekotan, bizitzan zehar beste nire lagun gehienak baino aukera gehiago izan dot, etxeko senitarteagaz hartuemonak izateko. Umeen jaiotzak, gazteen ezkontzak eta nagusien heriotzak ospatzeko aukera bedeinkatua izan dot, beti hemendik ibili izan nazalako.

*“Umeak hazi, nekeak bizi”
holan zan behintzat gurean,
eta ez jakun loteriarik
jausi baserri parean.
Praile joan nintzan arren
ez zan izan hau txarren,
gure hartuemonetan;
bata ta beste osotu dira
maitasunezko legetan.*

HASIERAKO HEGAZKADAK



Hau zan gure ametsa eta gogoia: Meza barria emon (1954. urtean) eta plazara. Hau be badok ba! 1941an komentuko bakardadera sartu eta 1954an urten munduko plaza erdira... Geure ustez, prailtzako labatik harako “opilak” urten genduan! Gure bizitzako bidean, bere oker-zuzen eta guzti, holan igaro ebazan bakardadeko eta isileko urteak. Nire bizitzako “errekaxoak” hemen eta holan

hartu eban bidea, ez Iruzubietako, “mila zubietako” bidea baino: 18 gazte, meza emon-barritan prest “kristorenak” egiteko, bere izenean eta herriaren gozamenen. Ni Deustura bialdu ninduen, hasieratik euskal mundura. Oraindino gure arteko gudaketa odoltsua amaitu barri egoan, begiak negarrez eta bihotzak odola dariola. Nik umetan jaso nebazan zoritzarreko burruka horren txipristin batzuk; karrera osoan ez euskuen horren kontu haundirik emon praileak, nahizta irakaslerik gehienak eusko gudarien kapilautzatik etorri-barriak izan; euren artean AITA PATXI, pasiotar praile adoretsua, kanonizazinoko bidean Erromara helduta, aurrera doana. Baina herrira urten eta kristauen autortzak eta entzutean, laster baten konturatu nintzan herriaren egoera gogor eta gordin horretaz.

Nora joango, eta bialdu
ninduen Deustu Bilbora,
hegaz ikasi-barri egoan
txoria lehoi zulora.
Beharrizana baegoan ta
jo neban euskal arlora
Orduan bai ni gustora!
Erlea bainintz, hor hasi nintzan
eztitan lorarik lora;
uste hau daukat: iretargia
antza, egoan ilgora.

JESUS KURUTZEKOAREN ONDOKO LANDARAK



Aste beteko gogojardunetan eta Misino Santuen giro beroan, han-hemen asegarri gehiagoren eske gelditzen ziran gazte banakaren bat. Garizuman eta abenduan, baita handik kanpora ere, han-hemen gelditzen ziran eske, gehiagoren egarriz gelditu ziranak. Bilboko Tivoli kalean eta Arenetako erlijiosen etxeetan bokazino argitze-prozesuan sartzen ziran batzuk, Jesus Gurutzekoari eskeintzen jakozan bizitza osorako; nire gidaripean, gehienak Pasiotar Ahizta erlijiosen kongregazinora sartu ziran. Oraindik Alkarte hasi-barria izan eta, gitxi izan arren, lau haizetara zabaldua, munduan zehar dabiltz gaur egun, Jesus onak deuskun maitasun haundiaren testigu eginda.

Maitatu eta zerbidu
zer dan ona badakigu,
Jesus Berak lez, gaixoak poztu
behartsuak zaindu.
Askatu mila katigu
gozatu hainbat kastigu,
Jesus Jaunagaz alkartu eta
pozez maitemindu.

Gu Ahizpa Pasiotarrak
gure osasun, indarrak
osatzen doguz Jesusen partez
gaixo eta zaharrak.
Asko dira ezbeharrak,
ez gitxiago negarrak,
Gu berotu ta indartzen gaitu
Jesusen sugarrak

“UME LAPURRETAN”



Urte askotan parrokiak parroki eta eskolarik eskola ibili nintzan prailegai txikien bila. Eroan nebazanek ehundaka izango ziran, vaina gehienak, hegoak hazi ala, beste aide batzuen eraginez, beste bide bat hartu eben. Gehienak baserri-landarak ziran, eta aukera ederra izan eben mundura urten eta ikasketak egiten jarraitzeko. Gure artean egondakoetatik asko dira gaur gure ondora hurreratzen diranak, alkarlanean jarraitzeko prest, edo gitxienez egunpasa gozoak alkarregaz emon gurarik. “Ume lapurretan” esaera honegaz

uxatu gura ebezan mutikoak, baina alperrik; hobeagorik eskeindu ezik... Dana dala, bidelagun onak dira. “Ume lapurretan”? Hain merke holango bideetara orduan urten eta holango eskeintzak egitea “ume-lapurretan” egitea bada...betoz holango lapur asko.




Gaur mutikoen bila eskolan
ha zan ha nire sasoia!
bihar ta etzi santuren baten
bertso ta guzti sermoia.
Ni “ume lapurretan”
nahiz esan guzurretan,
guzurretan errazoia?
Inon umerik lapurtu badot,
merezia dot jipoia.

BILBOKO LEHENENGO EUSKAL MEZA

Hamairu urtez gure bihotzak Jaunaren argiz eta graziz betetzen ahalegindu ondoren, sua dariola urteten genduan komentutik, munduko barri asko barik, bizi genduan argia eta poza zabaltzen. Ustekabean, heldu jatan eskabide berezi bat Bilboko Euskaltzaindiatik eta euskaltzale batzuek eginda: “Aita Martzel, prest al zagoz Bilbon hileroko lehenengo barikuetan euskeraz Meza bat emoteko? Ez daukagu meza bat ere euskeraz Bilbo osoan, ez domekaz, ez astegunez”. Nire baietza arduraz baina pozik emon neutsen. Eskolapioen eleizea aukeratuta

euken eta baita Pablo Gurrutien gotzainaren baimena ere. Komentu horretan neukan lagun haundi bat: Justo Mokoroa. Hasi baginan hasi ginan, eta pozik hasi ere eleiza bete euskaldun fededun. Euskerazko meza bakarra Bilbo osoan... Kontu haundiz hasi ginan badaezpada. Lau hilabete barru etorri jatan Erromako deia: "Eskolapioen Nagusi Jenerala naz. Zu zara Martzel Pasiotarra? - Bai, neu naz. -Hemendik aurrera ezingo dozu euskerazko mezarik emon gure eleizan". Harrituta gelditu nintzan. Baina nire lagunarteko arduradunakaz egoera aztertuta, Indautxuko Jesuitengana jo neban, han neukan beste lagun on bat. Euskaltzalea izanik, pozarren emon eustan baietza. Han jarraitu genduan pozik eta jentetza haundiaz. Hor nun deitzen deustan Gotzainak: "Zertaz berba egiten dozu euskal Meztan?" -Gozain jauna, banekian holangoren bat etorriko jatana eta Euskal meztan esaten dodana osorik makinaz idazten dot". Eta paperak kolkotik ateratean, badinost: "Ez, ez, ni zugaz fiatzen naz eta ikusi daizun, bai zeuk eta bai euskal meza horretara doazen guztiak meza bakotxeko 100 urteko induljentziak irabazten dozuez. Eta iragarri egizu hau lehenengo meztan alkartzen diran guztiei". Euskal jentearen poza, tentaldi arriskutsua bideratuta ikustean...eta 100 urteko induljentziak eta guzti. Bitartean, Gotzainaren agindua zabaldu zan: "Eleizbarrutian domeketako mezak euskeraz emoten diran meztan, laburpen bat erderaz izan daitela". Arduradunen ustez, ez gengoan gu agindupean, kasu berezia ginalako, eta gainera barikuz ospatzen gendualako. Halan be, "kasu berezia" ginalako, Bilbotar arduradunen bildurrez edo, laburpentxo bat erderaz egitea erabagi genduan, meza bakotxean, gaineratuz: "Gozainaren aginduz, esan doguna ulertu ez dozuenontzat"... " Eta Jesuitak eurak argitaratzen eben "Mensajero del Corazon de Jesús" aldizkarian Jesusen Bihotzari hilerro eskeintzen jakon asmoa irakurten neban. Ez dakit zergaitik, baina handik hilabetera edo gotzaittegiko eskutitz bat eskuratu jatan: "Gozainaren aginduz, ezin dozu mezarik emon Bilbon. Ez dakit zenbat denporan". Karta horregaz geure Nagusiarengana jo neban esanez: "Begira zer etorri jatan, holan bada, ni alperrik nago Bilbon. Ordurako jasoten hasita egoan Euba-Orueko Pasionisten Seminario barria izango zana, baina oraindik baserria bano ez, eta bertan bizi ziran hiru praile baino ez egozan. Kortan hiru-lau behi. Hori jakitean Bilboko arduradunak etorri jatazan, zer eta zelan izan zan jakitera. Eskutitza eskatu eusten, kopiaren bat aterateko edo. Emon neutsen eta handik hilabetera nun agertu zan "ENBATA", iparraldean argitaratu eta Euskalerra osoan isilpean zabaltzen zan aldizkaritxoan. Gotzainari be heldu jakon, antza, eta gure Nagusia bialtzen deust Eubara, kontuak hartzera. Kontuak kontu, hor amatau zan dana. Aita Patxiri antzeko bat jazo jakon: Han-hemen euskaldunei euskeraz meza emoten eutselako, Angostoko bakardadera bialduaz zigortu eben.



Euskaltzaindiak deia,
niretzat ametsa:
ez gauza erreza:
Bilbon falta jakula
euskerazko meza".
Eskaria gozoa
ezin emon eza,
gogoia bero baina
erantzun nekeza;
San Pelitzisimori
eginaz promesa.

Eleiza baten hasi
eta handik bota,
zer deutso inporta;
Indautxura joan ginan
gogoz ate joka.
Kontuz jarraitu behar
ta pausoz pausoka,
baina inguru dana
laban eta loka;
Errege zalakoan
atera zan txota.

Lehenengo aginduta
ehun induljentziak,
zer diferentziak!
Zergaitik jakin barik,
kenduz lizentziak.
Hamaika txotxokeri
aingeruz jantziak,
oi, zenbat indar daukan
komententziak!
Franko bizi zan eta
guk penitentziak.


BILBOKO SANTOS JOANES ELEIZAN EUSKERAZ MISINOAK

Bilboko Euskal mezak denpora laburrean iraun eben, baina izan, eragin haundia izan eben Bilbo aldean. Handik denpora laburrera, Santos Joanes eleizan Garizuman euskeraz gogojardunak emotera deia izan neban. Eleizakada ederrak batu ziran, pozezko bihotz betekada pozgarriz bihotzak gozatuz. Luzaroan euskeraren agiriko isilaldiaren ondoren, gure jardunaldi honeek sekulako egarria sortu eben Bilboko euskal bihotzetan.

BERTSOLARI TXAPELKETA

Euskaltzaindia bitarteko zala, Alfontso Irigoien eta beste batzuen arrimora, hor ibili nintzan baztarrik baztar lurralde bakotxean ezagutzen ziran bertsolari entzutetsuenen bila. Bilboko Arenalean ospatu zan lehenengo txapelketa 1958an. Durangaldean, Markinaldean, Gernikaldean, Mungialdean eta Arratialean lehenengo; eta ondoren, lurralde bakotzeko bi onenak Bilbon azkena. Eta Probintzia bakotzeko lau onenakaz, Gipuzkoako, Naparroako eta Iparralde, bakotzeko lau onenak barruan zirala, Donostian azkena. Hiru-lau urtetan suertatu jatan mahaikide izatea, lehenengo Bizkaiko txapelketetan eta ondoren Donostiako txapelketa orokorrean.

Nire eritxiz, bete neban neure egitekoa bertsolari txapelketa arloan: Bertsolari txapelketa indarrean ipini, eta 50 urte geroago Barakaldoko BEK-en Euskalerrri osoko txapelketa nagusiaren barruan, hasierako txapelketetan partekide izan ginanoi ohorezko izentazino bat egin euskuen, oroigarri eta guzti. Hiru ginan: Azpillaga, Lopategi eta neu.



Hainbeste urtez bizi ezkerro
hamar mila barriketa,
baita ekintza eder ugari
eta jo barik tronpeta.
Danen artean pozgarrien bat
“*Bertsolari txapelketa*,
hor ahariak topeka.
Batetik gaia, bestetik berbak
ta gorde behar oreka,
hamaika ordu, hamabi leku
baditugu hor beteta!

Hara ta hona, gora ta behera,
askoren ustez ezina;
baina lehenago esandakoa:
ezina ekinaz egina.
Handik hemendik batu genduan
ahal izan gendun pitina,
ez zan falta ahalegina...
Sasi ta saltsa igaro eta
plaza erdian zezina.
Begira BEC-en zer ikuskizun
gartsu bertso irakina.

EUSKALTZAIN URGAZLE

Saltsa horretan nenbilela, heldu jatan beste karta bat Euskaltzaindiatik: Euskaltzain Urgazle izendatu nauela (1961.urtea zan). Holangorik! Ez neukan horrexen ardura haundirik. Baina mingarrizko karta batzuen orde...txarto be ez. Horren gaintik, bestelan neukan eskubete eskabide herrietatik eta ez neutsen luzaroan jaramonik egin. Izan ere, kargu baino gehiago ohorezko oparizat hartu neban. Ez horretarako joerarik ez neukalako; nire ustez, nik aurretik neukan neure bidea eta konpromisoa hartuta, niretzat lehenago zan eleizgizon lez hartu neban eginbeharra eta horretan jarraitu dot azkenera arte. Horregaitik nire liburuetan euskaltzain baten idazkerarik ez dozue aurkituko gehienbaten. Nire irakurleak egundo erderarik gitxi eta euskerarik gitxiago irakurri dabenak dira. Nire poza aitita-amama batek esaten deustanean: “Zure euskal liburuak errez ulertzen dodaz; beste gehienei ezin izaten deutset zentzunik aurkitu”. Nik neure aukera hau egin dot neure bizitzan, besteak beste



EUBAKO EUSKAL JIAK



Gudaketa zital horren ondorengo susperraldiaren barruan, EUBAKO EUSKAL JIAK antolatu genduzan Aita Eleuteriok eta biok bost urtetan (1957-61). Maiatzaren azkenaldian izaten zan, Pasionisten Sortzaile Gurutzeko San Pauloren jaiegunaren kerizpean. Orandik horren antzekorik be ez zan inon agertzen. Beharrezko baimenak nekez eta lorrez lortu ondoren, milaka lagun batzen zan gure Orue inguruko plazan eta inguru zabalean, eguerdirako bazkari eta guzti. Bizkaia osotik eta Gipuzkoako zati haundi batetik etorritako euskaltzalez baztarrak kopuru. Inguruko zabalgunee haundian ospatzen ziran goizeko eleiz ospakizunak; ondoren hasten zan Euskal Jaia. Bizkaian eta Gipuzkoan ezagutzen ziran bertsolari, dantzari, kantari, oihulari, antzerkilari eta lari-laro pila batek jarduten eben goiz eta arratsaldez. Jaialdi pozgarri honetarakoxe antolatu behar izan nebazan hiru-lau antzerkitxo euskeraz, ondoren herri batzuetara be zabalduak izan ziran.





Bihotz betean maite doguna
hondatu nahi gogorrean,
ondo dakigu guk nortasuna
zaintzen dogu zigorrean.
Bertsolariak dira
jartzen dabenak jira
Orueko tontorrean,
Euskaltasuna dizdiz jartzen zan
Orueko Taborrean.

Maiatz haseran jausten zan sarri
Aita Pauloren jaiegun,
goiz ta arrasti batzen zan Euban
hamaika jente euskaldun.
Fedea ta Euskera
anai bikotx antzera
Euskaldun eta Fededun:
Jaunak alkartu eta nok aska?
Hori da pekatu astun.

ARRATEKO IRRATIA

Ingurugiro horretan sortu zan Arrateko Irratia herrikoia: otoitz, doinu eta inguruko gora-behera guztiak zabaltzen ebazan lau haizetara. Pedro, parroko jaun zintzoak hamaika ahalegin egin eban Eibarko euskaldun zintzo talde baten laguntzaz Irratia bedeinkatu hau sortu eta iraunazoteko. Durangaldera be eskatu euskuen laguntza. “Oiztik Anbotora” izenez antolatzen hasi ginan taldetxo bat, Durangaldeko laukote bat. Anbotoko Mari sorginak ez euskun behin asko lagundu. Joan XXIII. Aita Santuak “Pacem in terris” enziklika famatua argitaratu ebanetik urte betera, lankide batzuen ustez, haren arrasto batzuek aideratzea egoki legokela esan eusten. Ez ahaztu urte gitxi aurreratxoago ospatu genduala “25 años de paz”. Eta enziklika horretan garbi etozan benetako bakerako behar ziran lau osagarriak: egia, justizia, askatasuna eta maitasuna. Lau atalok banan aideratu nebazan. Kontuak atera: Frankorik aitatu ere ez neban egin. Orduko bertsolariak lez, holango kontuak erabiliterakoan, zereko zera zelan zertu asmatzen ibiltzen ginan, zerek onenean zertu behar. Itxura danez, zereko zeraren azpian zera zertu eben. Anbotoko sorgina uxatzeko besteko trumoi burrundara zabaldu zan. Estatuko Delegatuak bere gain hartu eban arazoa, herri batzuetako alkateak xaxatuta, Arrateko Irratia urte batzuetarako itxita egon zan. Kontua zera da: Ispilua ipini nebala danen aurrean, eta ispiluan Franko ikusi ebela askok bizirik.

MISINO SANTUAK

Gure arteko Eleiz bizitza bere onean egoan artean, nahiko errez bideratzen zan. Garizuman eta abenduan Misino Santuak eta gogojardunak eskeindu herriari eta nahiko errez bideratzen zan herria. Bitarteka gazteei Luistar eta Mariaren alabei berbalditxo bat, ondoren autortzeko aukera emonaz eta nagusiei Apostolutzako jardunaldien bidez, nahiko zan kristau bizitzari eusteko. Baina azkenengo urteetan kristau bizitzak egin dauan beheraldian hori ez zan nahiko. Herri bizitza guztiz aldatzen joan da, ez dago zeri eutsi; barriro hasi behar da barriren barri eta gaurko giroak eskatzen dituan bide barriak erabiliz. Ez da moltzoka herria erabilteko unea, banan edota talde txikietan, Jaunaren Berbea eskuetan dala, astiro eta alkarte txiki eta beroak eratuz.

Jakina, abade mundua zan jaun eta jabe, batez ere kontzientzi kontuan. Indarrez eleizara eroan eta eleiz legeak ezarri, harrapatzen ebena estu eta larri gelditzen zan. Beti ere, pisu eta indar gehien euketak gehien baten seigarren agindua eta sinismenaren ardatz ingurukoa zan.

Itxura baten Eleizea indartsu egoan eta noizean behin zarraparra bat atera eta lehengora. Autorlekua epai leku zan. Bildur bat bai!. Giro horretan guk pasiotar misiolariok bagenduan geure jokabide ziuerra, Aita Paulo Kurutzekoarena, bere erakutsietatik jasotakoa. Ni neu meza emon- barritan horretarako aukeratu ninduen eta hor ibili nintzan urte askotan baztarrak astintzen: Kurutze eder bat paparrean genduala, agertzen ginan herriaren aurrean. Gainera maleta haundi bat edo bi eroaten genduzan, batean Jesus Kurutzekoaren irudia eta kurutzea askatzeko pretauta: Oholtza zabal bat jartzen zan eleiz aurrean eta han egoten zan hasi aurretik azkeneraino. Eguenetan egiten zan Jesusen gorpua kurutzetik jastea, astiro eta sermoiari bero bero jardunez, gorpua beste misiolariaren besoetan gelditzen zan, herriagaz batera kantuz eta erresuz amaitzeko.


Normalki, ekintza hau barikuan egiten genduan. Jakina, bezperan zabaltzen zan ohar serioa: "Gaur gaueko kanpaiak jo aurretik, alkarri parkeskatu behar jako". Zenbat herritan, hamarretako parkamen kanpaiak jotean, gizonak tabernan belauniko ipinten ziran bost zaurien gomutaz, 5 Aita Gure erresatuz belauniko. Ordurako gauez hara-hona azkar ibili beharra egoan, alkarri parka eskatu beharrik baegoan. Azkenik bariku arteko ordurik gordinenean, sekretuan dana ondo eta zehatz pretauta, eleiz atzeko ate nagusia edegi eta hor nun agertzen dan Ama Birjiña dotore jantzita, lau andarien lepo gainean. Herriak zutunik pozarren negar malko ugariz hartzen eban. Bera zan seme alaba pekatarion alde jarriko zana. Eta han geratzen zan taula gainean erregina jantzita seme alabon erdian. Ondoren hasiko ziran autortzak. Orduko eleiz giroan gehiengoarentzat okerbideetatik zuzentzeko aukera ederra izaten zan. Sarri arinkeriz esaten danaren kontra, badago zer esana. Esan dagiela, eguenean eskolako ume ta guzti, Gure Jaunagaz, kantuz eta errezu murmurioz, herriko

gaixoei Gure Jauna eroatean, soloan idi buztarria gelditu eta araketan ziharduen gizonak, idiak gelditu eta txapela kenduta, belauniko bedeinkazinoa hartzen eben. Sasoian sasoiko, gaur eleiz giroa guztiz aldatu da; orduan ordukoa eta gaur gaurkoa. Baina, mesedez, gaurkoa zer da?



Oi aintxinako kontuak
zuzen ta bedeinkatuak!
Eskerrak sarri etorten ziran
Misino Santuak.
Ondoren beharlekuak:
nori esan pekatuak?
Pater Noster bat errezatuta
on egin Pazkuak!

Misinoen etekina
zuzentzeko ahalegina;
Lehengo bidera bihurtu eta
ez galdu lehen egina.
Munduak bere ekina,
guk geurez kontra ezina,
Eskerrak beti laguntzen dagozan
Jesus ta Ama Birjina.



GASTEIZKO SEMINARIORA ARGI BILA

Lekutan gelditzen dira gure ikasketaldiko teología eta Eskritura Santuak! Estatu osotik batu ginan 60 inguru abade eta praile Gasteizko Seminarioan, Kontzilioako argi barrien bila. Erromako eta hemengo irakasle entzutetsuenak etorri jakuzan, zein baino zein sakonagoak, hiru urteko udaldietan. Lau udaldi luzeetako ekintza sakona eratua izan zan, baina hiru bakarrik egin ahal izan genduzan. Hasi eta aste betera alde egin euskuen Burgos aldeko zazpi abadek, eurentzat eskola gordintxoak zalako ustez; izan ere, hasieratik susmo txarrez ikusiak izan ginan eleiz agintarien aldetik. Eta hori Kontzilioaren esparru barruan ibilita.

Laugarren udaldia ezin izan genduan antolatu, galazo egin euskuen eta. Horren ordez, Sinai aldera eta Jerusalemara bisitaldia antolatu genduan. Zoritxarrez taldeko napar abade bat galdu genduan Sinaiko basamortuko beroaldiak jota edo. Kontzilioko erakutsiak ondo hausnartu ondoren, berbaldiak eta erakustaldiak ezin lehengo arrastotik eroan. Zorionez egin nebazan udaldietako ikastaldiak: neure fede bizitza argitu eta oinarri sakonagoetan ezarri neban; pozgarrizko eragina barruratu jatan, kristau eta praile izatea Ebanjelioan askoz be errotuago bizi eta erakusteko.

MUNDU HOBE BATEN ALDEKO MOBIMENTUA

Gitxien uste nebanean eta arduraz buruz gain nenbilela, beharrezko ikusten neban lanbide barri bat ate joka: Kontzilioko pentsaera eta bide barriak herriratzea: "Mundu hobe baten aldeko Mobimentua". Erroma aldetik etorren Mobimentu hau. Baina aurretik norbera jabetu behar zer zelan egin. Horretarako La Granjan antolatu eben aste beteko ikastaro bat. Dana itzi eta haruntz luzatu nintzan. A zelango betekadea! Baina hori guzti hori zelan bideratu gure herrietan? Aurretikoa ondo ikasia neukan: Buruz ikasi eta gustura herrari eskeindu. Baina hori egiterik ez egoan giro barri honetan. Soseguz eta alkarrizketa bidez, bide barriak maitasunez zabaldu behar. Talde-lana eta alkarrizketa ziran jokabide biak. Eta hor noa barriro La Granjara, alkarte-lana zelan egin ikastera. Gainerakoa eginaz ikasten zala-ta, banango deiak eginaz, Durangon hasi nintzan leku bila. Ez parroketan, ez praile-monjetan ez eusten lekurik eskeindu. Lotatik itzartuteko ordua ez da izaten gustokoena... Azkenean San Frantzisko komentuko monjetan "Txoritxu alai" aretoan hasi ginan 40 lagun. Ordua zan isileko eleiz eta herri kontuak kalera aterateko, bide barriak zelan egin, nundik hasi, nortzuk arduratuta...? Bazirudian gizaldietako gerriko sendo bategaz lotuta egondako jentea ginala. Kontuak atera: Hamabi eleiza ziran Durango batean eta ez astegunetan, ez domeketan meza bat bera ere ez egoan euskeraz... Bikario izendatuta durangoratu nintzanean, laster batean jarri genduan bat Andra Maria eleizan. Bardin jokatu neban Mobimentu horren haizetara Zornotzan, Gernikan, Lekeitio, Ondarroan, Markinan, Elorrión eta Igorren. Ha zan bular betean arnas hartzea! Nik behintzat bai, nahizta lehengo sermoi zaratatsuetan baino gehiago nekatu. Etorkizunerako bide barriak indarrean jartzea zan kontua. Jente hori izan zan laster batean parroietan antolatu ziran kontsejuak eta borondatezko arduradunak martxan jarteko aukerakoak.



Zorionean agertu jakun
Eleizan Kontzilioa,
mundu barrian zelan eskeindu
eraz Ebanjelioa.
Aztertuz gaurko munduko gatxa,
baita bere balioa,
alperrik da txilioa.
Zahagi barriak behar non gorde
ardaua ta orioa;
orduz ta moduz jokatu ezik
laster patrifilioa.

Mundu barria egin behar ta
hasi da Mobimentua,
Erroma aldetik jatorku deia:
“Heldu da gure ordua”.
Lehenengo ta bat, danen erdian
jarriaz Jesus Maisua,
hori da bere lekua.
Eleizjente ta herritar laiko,
alkarri emon eskua,
Ebanjelioz ta Espirituz
hobetu daigun mundua.

ANAI ARTEKO ARDURADUN



Probintzian Kontseilari eta
gure Oruen nagusi
nik zelan esan hor zenbat neban
ikasi eta ikusi.
Nagusi bai izenez
zerbitzari izanez,
orduan kontuan jausi;
gehienak holan dala dinoe,
orduan ez da itsusi.



Batetik bestera ibili eta ibili egin ondoren, halako batean etxeko arduradun aukeratu ninduen (1969). Baina neuk hartuta neukazan bide barriak indarrean jarteko baietza jaso ondoren; hiru sailtako arlo nagusien erantzuleak izendatuz: Ikastetxeko ardurak batek, ekonomi-ardurak beste batek, eta nik gogartetxea eta ardura orokorra; eta hilean behin hiruron artean joan-etorrien barri jakin eta kontuak zuzentzeko asmoz. Baina La Granja-ko ikastaroak eta giro barriko esperientziak baino indar gehiago eukan urte askotako heziketak eta praile arteko ohiturakeriak.

Probintzian Kontseilari eta
gure Oruen nagusi
nik zelan esan hor zenbat neban
ikasi eta ikusi.
Nagusi bai izenez
zerbitzari izanez,
orduak kontuan jausi;
gehienak holan dala dinoe,
orduak ez da itsusi.

ANTONIO AÑOVEROS GOTZAIN JAUNA

Ordu onean sartu zan Añoveros gotzaina Bilboko Eleizbarrutian, nahizta sarreran sekulako iskanbila atera bere aurka. Sarreratik apaltasunez eta irribarrez agertu zan batzar guztietan.

Hemengo joan-etorrien jabetasuna hartu ebanean, etorrita laster deia Eleizbarrutian Gotzainaren izenean: lurraldeetako Bikarioen aukeraketa

egiteko botazinoa antolatu zan, abade, erijioso, monja eta eleiz arazoetan lankide ziran laikoen artean. Eta hirugarren botazinorako neu jausi nintzan Bizkaiko euskal lurralde zabal baterako **Bikario** hiru bider: Durangaldean, Elorrialdean, Zornotzaldean, Arratialean eta Galdakoaldean.

Lepo beteko karga astuna gainera. Sasoi onean harrapatu ninduan dei honek eta baietza emon neban. Komentuko bakardadetik ez egoan ahalmenik ardura honeri patxadaz erantzuteko, eta Durangora bertara aldatu nintzan eginbehar hau hobeto bete ahal izateko.

Honetan-horretan, Añoveros gotzain jaunaren idazki famatuak (El cristianismo mensaje de salvación para los pueblos) harrapatu ginduzan. Ha zelango saltsa-maltsa sortu zan!. Eta herri agintarien artean zapata-hotsa, egonezina. Eta horra epai gogorra: Añoveros erbesteratzea. Hegazkina Loiuko aideportura ekarrita egoan. Baina Añoveros ez zan errez makurtzekoa holako egoera baten aurrean: Aita Santuaren baimen agiria eskatu eutsen, legezkoa zanez; eta ez eukela erantzun. Añoverosen erabagia: “Niri ikututen deustena eta hori agindu deustena berehala eskomunikatuta gelditzen dira”. Jarrera horren aurrean



etxean itzi eben, baina etxe-kartzela zigorra ezarriaz berari eta bere Bikario Nagusiari, Jose Angel Ubietari. Berehala hasi zan Añoverosen aterainoko herritarren olatu luze mardula, adore emonez, besarkadaz eta lore txortaz zorionduz. Guk Bikario taldeak bere etxean egiten genduan batzarra, egoera larri horretan zelan jokatu jakiteko. Handik aste bete baino lehen erabagia: geutariko batzuk Madrilerara joateko, Nunzioari eta Gotzain batzarreko Nagusi zan Tarancon jaunari hemengo barri zehatza zuzenean emoteko. Tarancon bete-bete jarri jakun Añoverosen alde, lehenagotik biak pastoraltza lanetan lagun haundi ziran eta; eta egin behar ziranak egiteko prest Añoverosi ikututen ba eutsoen. Eta bere jarrera agertu be egin eban.

Euskal Herriko Eleiza Amak
Izan dau nahiko burruka,
honeik bazartu, hareek burla,
besteak lapur oihuka.
Antonio Añoveros
bihotz ta gogo beroz
gogor jarri jaken aurka;
“Herriak ditu eskubideak
ta ezin daikeoz uka”.

Eleizbarrutian Bikario
izentau ninduenean,
neu eta beste harritu ginan
nire izendapenean.
“Bikario praile bat
errukia beretzat”
askoren autormenean.
Egitekoak egin genduzan
Jainkoaren izenean.

BETI AURRERA



Bikarioak geunkan arloan aurrera egiteko aukera. Gazteak egozan noraezean, ertzeko politika alderdien eskuetan jausteko arriskuan. Ez ginan lotan egon. Zirt edo zart. Eta betiko bidea: Bideak eta ekintzak aukeratu eta erabagi. Inguruko abadeei eritxia eta laguntza eskatu, eta Ermutik hasita Arratia osorainoko gazte

mordo bat berotu eta amesetan eragiteko erabagia hartu genduan: Gazteentzat hiru urteko ikastaroa antolatu genduan Durangon, teologia, Eskritura eta Eleiz bizitza landu, arlo berezienak aukeratu eta Kontzilioko harian jorratuz. Pasionista monja bat ebilen orduan euren ikastetxerako umeak batzen autobus eta guzti; aukera ederra bai eurentzat eta bai guretzat ekintza eder honetarako; euren autobustxoa eta Fatima nabarniztar monja zintzoa txofer eta guzti prestatu euskuezan, gazteak herriz herri batzeko eta banatzeko. 100 inguru gazte martxan ipini genduzan, euren artean konpontzen ziran astero hasierako otoitzaldi gozoa antolatzeko eta mobimentu horrek eskatzen eban guztia egiten joateko. Gazte horreen artetik urtengo eben monitorea eta abar. BETI AURRERA izeneko gazte Mobimentu honek ez bakarrik burua, espiritua be



Kristau gaztedia
 BETI AURRERA!
 Goazen burrukara
 BETI AURRERA!
 Herrigintzan
 Gizonaren alde
 BETI AURRERA!
 Bai, bai, beti aurrera (bir)
 Herrigintzan
 Gizonaren alde
 BETI AURRERA!

Bide luzea da
 BETI AURRERA!
 Eta mila arrisku
 BETI AURRERA!
 Aldatz gora
 Guztiok batera
 BETI AURRERA
 Bai, bai, beti Aurrera (bir)
 Aldatz gora
 Guztiok batera
 BETI AURRERA!

JUAN MARIA URIARTE GOTZAINA

Zorionean agertu jakun Juan Maria Uriarte jauna, Fruisko semea gozain laguntzaile lez gure artean. Aurretiaz, bai seminarioan eta bai eleiz pastoraltzako arloetan bultzagile argi eta sutua. Euskaldun fede gizon argia ta sakona izan zan. Ekaitz burruka sakonak astinduta egoan orduan Eleizbarrutia. Juan Mariak aparteko dohaia eukan, bere eleizgizon nortasuna zainduz, Eleiz bizitzari

bultzada haundia emon eutson. Herri bizitzaren azpiegiturak eta bertako arduradunak ondo ezagutzen ebazan. Batez ere laikaduagazko hartuemonetan dohai eta joera bereziak agertu ebazan. Bere eraginez, Eleiz bizitzan erakunde sail batzuk laikoen eskuetara aldatu ziran. Ez zan izan sakristiako paper arteko eleizgizona; sortu zan eguraldi barriari laster sakonetik igarri eta oratu eutson, berari egokionez. Hainbeste hartuemon izan nebazan beragaz bere Santutxuko etxean; bere ama eta guzti hartzen ninduan bihotz eta esku zabalik. Eta arlo barriak bultzatu eta argibide zehatzak emon bere bai. Niri neuri asko eragin eustan Juan Mariren ondoan lan egiteak, batez ere bide barrietara zabaldu nintzanean.

Bilborako gotzain laguntzaile izendatua izan zan 1976. urtean eta handik 12 urtera Zamorara aldatu eben eta azkenik Donostira 2009ra arte.

Juan Mari Uriarte jaunagaz
suertatu jatan lankide,
eta hainbeste urtez lanean,
azkenean adiskide.
Argia ta zuzena
lanerako kemena,
neke ta pozetan kide;
Erreinuaren alde lanean
eten barik bidez bide.



LURRALDEKO GOTZAIN-BIKARIO

Hirugarren aukeraketan neu izan nintzan ajukeratua. Urrutu batzuek egin nebazan, baina sasitsa batzuk garbitu eta gari-arto sail bihurtu be bai. Anbotoko sorginak Anbotoko kobatik Oizera sasi danen gainetik eta laino guztien azpitik egiten ei ebazan joan-etorriak. Baina nire kasuan, sasi-laino artean sartu eta aurrera egin beharrean egon nintzan txaka-txaka ibiliaz, sarri laino artean urrutu batzuek eginaz, aurretik Aitearen ondo eginda. Egia esan, niretzat aukera barri bat izan zan, buru-belarri sasi-masi batzuek garbitu eta solo bihurtzeko. Jokabide eta ekinbide barriak indarrean ipini eta ekin halan edo hilan, lortzen danagaitik eskerrak emonez, eta hurrengo baterako itzi ernegu barik. Eginak eginda, 12 urteko ekitaldi hau gogoratuta, “Hori dok eta” bihotz zabalez esateko moduan sentitzen naz. Jaunari eta lagundu eusten lankide zintzoei eskerrak emonez.

Eleizbarrutian Bikario
izentau ninduenean,
neugaz beste asko harritu ginan
nire izendapenean.
Bikario praile bat
hiru aldiz bai behintzat
ekintza bardinean;
Egitekoak egin genduzan
Jainkoaren izenean.

FRIAS-KO UDALEKUAK



Frantzisko Aita Santuak dinoskunez, eleiztarrok kalera urten behar dogu; noiz nor etorriko begira egon barik, nori deituko eta lagunduko baztarrik baztar ibiliaz. Durangaldeko abadeak berotuta gero, Friasko ekintza honek hamaika hamabiko kilometro eragin euskuzan toki egoki eta merke baten bila euskal lau Probinbintzietan zehar. Azken batean, Burgosko ertzean Friasen aurkitu genduan “txarritoki” bat, bertan behera itzita; diruz merkea baina izerdiz karua. Baina bageunkezan gazte jentea eta nagusiak bere bai, hiru hilabeteetan dana garbitu eta egokitzeko udarako. Hiru txanda euskaldun umeentzat eta bat erdeldunentzat izan ohi ziran. Friasko udaldiko ekintza honek izan eban eragin ederrik Durangaldean! Niretzat hau bai izan zala “txarri-usaina” edo “ardi-usaina” hartzeko aukerako lanbidea, Frantzisko Aita Santuak dinonez. Eta ze aukera zoragarria emon eustan ekintza honek otoitz esperientzi ezbardinak egiteko ume, laguntzaile eta senideekaz, bisitatzera etozanean. Jolasera joiazanentzat merkea eta zerbitzera joiazanentzat doan... Benetako zerbitzua Ebanjeliozko graziz kutsatua. Ez dauka jentek ahaztuteko Friasko esperientzia. Udalekuko

esperientzi honek asko lagundu euskun Eleizearen egoera lehorrean aurrera egiteko: ume, gazte eta guraso auzolanean jartea dala biderik egokiena Eleizea zer dan erakusteko: anaiarte maitagarri bat txikien eta baztartuen alde doan martxan jarrita.



*GURE UDALEKUA
DAUKAGU FRIASEN(bir)
HONELAKORIK EZ DA ERROMAN
EZ ETA PARISEN(bir)*

Goian zeru ederra
gau ta egun urdin,
hemendik zeru hori
ez dago hain urrin.

Egunez eguzkia
beroago ezin,
gaueko izarpean
zer poz ta atsegin!


“Alkartasuna” dauka
izena jarria,
alkartasunerako
kabi pozgarria.
Alkar ezagutzea
dala oinarria
alkar behar dogu ta
ondo etorria.

LEHENENGO EUSKAL BIBLIA

Beste hutsune haundi batek garratzuten ginduzan euskal alderdiko eleizgizonok: Euskerazko Bibliarik ez geunkan eskuartean, herri mailan erabiltekorik behintzat. Arazo honetan haginak zorroztu beharrean aurkitu nintzan. Abade lagun bi berotu nebazan eta Jaime Kerejetarengana hurreratu ginan. Lehendik ere Bibliako arlo zabalak euskeratuak eukazan. Agertu geuntsan gure gogoia eta behar eban laguntza osoa. Bai gogo beroz atxurra sartu arlo barrian, bai Jaimek eta bai guk! Zuzentzen eta ordaintzen handik hemendik lagundu jakon eta horra lehenengo Biblia herri mailan bizkaieraz argitaratua. Gogoan hartzekoa da zenbat erakundek parte hartu eben ordainketan: Bilboko Gotzaintza, Eusko Jaurlaritzza, Bizkaiko Foru Aldundia, Iberdrola, Caja Laborala, Bilboko Bizkaia Kutxa eta Banco Bilbao Vizcaya.

LUIS MARIA LARREA BILBOKO GOTZAINA

Koldobika Mirena
Gozain agurgarri!
Gaur zeu nahi zaitut bertso
kantura ekarri.
Orain hamasei urte
zinduezan jarri
Bizkaiko eleizburu,
batasun lokarri.
Ona hemen gaur danok
agurka alkarri



Añooveros bai izan zala Aita Frantzisko Bergogliok dinon “ardi-usaina” dauan artzaina. Ardiak zaintzearen bizia jokatu ebana. Haren ondoren Luis Maria Larrea autatu eben Bilboko Gotzaintzarako.

Irribarrez eta apaltasunez beterik agertu jakun. Eleizbarruti barrian aurkitu eban giroan aurrera egiteko gogoia agertu eban. Bikario ekipoan erabagiten zana aurrera joian. Espirituaren argiz eta adorez beterik, Eleizbarrutiko ASANBLADA jarri eban martxan. Eleizbarrutiak gogotsu hartu eban erabagia eta eleiztarrak - abade, erlijioso, monja eta laiko- antolatu ginan taldeka eta nahastean, hiru urtean sail nagusiak jorratuz eta Kontzilio giroko erabagi ausartak hartuz. Ikaragarria izan zan Bilbon Feria de Muestras zabalean amaieran antolatu zan Eleizbarrutiko Asanblada Nagusia, erabagi zehatzak leporatuz, urteetan zehar lantzen joateko. 20.000 lagun izan ginan alkarlanean bide barrien bila.

EUSKAL KATEKESIAREN KERIZPEAN LEHENENGO IKASTOLAK



Eleiz-udabarri giro honetan, Eleizeak berak be bere ardura eta partaidetza agertu gura izan eban euskal arazo batzuk bideratzeko.

Eurakustaldi ederrak baino hobeak ziran han-hemen sortzen ziran lehen urratsak ikastolen alde. Honetan eleiztarrok be ahaleginik asko egin genduan, arriskuak arrisku. Euskal ikastolen lehenengo arduradunak euren batzarrak denpora luzean geure Orue-Eubako etxean egin ebezan, harik eta pulpituetatik diranak eta ez diranak botaten hasi arte: gure etxeak komunistei eta ezkertiarrei eskeintzen hasi ginala eta abar barrabaskeri zabalduz. Bigarren ekintza bat: Nik neure apurra dakart gogora: Mila eta Maria Angeles lehenengo andereñoak zirala, Lemoan, Igorren, Matienan eta Berrizko parroketan, katekesiaren kerizpean, ume txikiakaz euskal ikastolak indarrean jarri genduzan, bestelako danak hasi aurretik, legezko ikastolak hasi aurretik. Pausoka egiten dira bide luzeak. Eskerrak bide neketsu honetan bai abade eta laiko zintzoak lagun izan genduzala: esaterako Jesus Llona Berrizko parrokoa eta Antonio Andrinua, parroko lanetan eta euskal katekesi honen arduraduna. Giro nahastu horren erdian, Bilbo aldean lehenengo ikastola nagusia Deustuko San Felizsimoren eleiz azpian hasi zan, tirabira askoren gaintetik. San Pelisimok be baeukan, antza, hor zerikusirik arazoak zuzentzen...



GOGOETA ASTEA

Hona hemen beste arlo barri interesgarri bat: **Gogoeta Astea**. Kristau herrian ipar haize mingarria sortu zan, Eleiz bizitzari be eragin haundia ezarriz. Oraingo eraginak barru-bizitza, sinismen alderdia aidean jarri eban: Ekintzaile zintzoa izatea nahiko dala, beste barik, fededun izateko. Eta bertan behera gitxitzen hasi ziran Gogojardun eta antzeko espíritu bizitzaren euskarriak. 1983. urtean batzar bat antolatu genduan Arantzazun: abade, praile, monja eta laiko. Batzar interesgarria. Lehenengotan arinkeritzat jo eben askok, baina egi gordina zan geroak erakutsi dauanez. Ezker politika nabarmendu zan, erakunde eta siniskera guztien aurka. Adinez, izatez eta bizitzaz era eta alde guztietakoak gogotan eukiaz, batzorde zabal bat egin zan ekintza hau indarrean jarteko. Balendin Zabalo bermeotar abadeak eta biok hamaika joan-etorri egin genduzaan hasieratik, Probintzia bakoitzean leku egoki bat aurkitzeko. Berbaldi, ototzaldi eta abar euskera hutsean izango zan. Aste barruko gaijartzaileak be danetarikoak izaten hasi ziran: laiko, erlijioso nahiz abade. Urtero Probintziz aldatzen joan ginan ospakizunaren kokalekua. Azkenerako urte batzuetako esperientziak eraginda, Loiolako Arrupe etxea aukeratu genduan ospakizunetarako, batzarkideen zenbakiagaitik eta lekuz erdigunea zaintzearen. Benetako gogoeta izateari kostata eutsi geuntsan hasieran: goizeko otoitzaren ondoren gai egoki bat azaldu eta eguerdira arteko isilaldia gogo-hausnarketarako. Arratsaldean beste gai bat, goizeko gaiari egokion esperientziaren bat eginda daukenak eskeinduta, ondorengo alkarrizketa eta guzti. Zehaztu beharrekoa da ilunabarreko Eukaristia ospakizun zoragarria. Geure artean urte askotan izan genduan Karlos Agirre, egun osoko gaia eta giroa Jumaren Hitzagaz argituz eta geuretzat bizigarri bihurtuz. Askorentzat hau izan da Gogoetako zatirik gozo eta asegarriena. Gaijartzaileak diranik onenak ekarten ahalegindu da batzordea: Gotzainak, politikari kargudunak, euskal hizkuntzalari jakintsuak, maisu eta andereino argiak, eleiz eta gizarte mobimentuetako zuzendari trebeak, Caritas zerbitzuen arduradunak eta abar luze bat. Behetik gora hasi eta indartzen joan dan mobimentua da.

Zorionez ez dogu izan galgarik ez Eleizaren, ez gizartearen aldetik.

Barrero gogoratzen dot esperientzia honen erakutsia: Euskal Herriko eleiztarrok, Euskal Herri osoan eta euskera hutsean orain 34 urte sortu eta iraun dauan ospakizun bakarra: GOGOETA ASTEA da. Eta oraindik bizirik darrai. Aintza Aitari eta on egin seme-alaboi!



1

alkartzen gara urtero
abade, praile eta laiko
bada nahi beste bezero.
Otoitz ta jardun egin ondoren
jartzen gara bero-bero,
gauza ederra hogeitahiru urtez
alkartzen iraun ta gero.

2

Bizkai, Gipuzku ta Naparroa
bai Araba ta bai Iparralde,
urtero lekuz txanda aldatuz
Euskera hutsez bestalde.
Hau jakinda askok, txarraren susmoz
ze arraio ete dan galde;
Garbi esanda, gu gareala
Gogoeta Aste talde.

3

Gure Eleiza eta Herria
jorratzen doguz batera,
bai Jaunarekin, bai Herriarekin
erabiliaz Euskera.
Jainko argitan aztertzen doguz
mila ta bat gorabehera,
euskaldun jainkozale batentzat
a zer nolako aukera!

4

Lekuz aldatuz ezin izan da
nonahi egin topaketa,
hemen Loiolan amaitu dogu
gure leku bilaketa.
Behetik gorantza hasi genduan
zorionez Gogoeta
Herriak ere Espiritua
Lagungarri dauka eta

ELEIZ KARGUA PARROKIAN HARTU DABEN LEHENENGO LAIKAK: Mila Egiguren eta M^a Angeles Angoitia

Gure bizitza bedeinkatu dau
Jainkoak eskuzabalez,
beti egon naz inguraturik
lagun zintzoz ta maitalez.
Danen artean aitatzen dodaz
Mila eta Marianjeles,
eurokaitik gaur zelan eskertu
Jainkoari behar dan lez?

Andereño lez ekin ondoren
ikastolako lanari,
Eleiz ardurak sortzen deutseez
neke, arazo ugari.
Asko erein eta hain gitxi batu
neketsu dala nabari;
zuekin beti zorretan dagoz
Izurtza eta Mañari.



Azken aholku batzuk biontzat
daukadan esperientziz,
bide luze ta neketsua da
ta ibili pazientziz;
Zuen bihotzak bete eizuez
Jesus Jaunaren presentziz,
orain ehuneko bat eta gero
zerua dogu herentziz.



Eleizbarrutiko Gotzain-Bikariotza amaitu nebanean, Luis Mari Larrearen kezka: “Eta orain zer egin behar dozu?” -Ez dakit ba; ni erlijioso naz eta lehenengo neure Kongregazinoko Nagusiei itaundu beharko deutset. Etorriko niaitzu hamabost egun barru”. Joan nintxakon erabagiak hartuta: “-Goztzen jauna, ez dot uste ez Leonen eta ez hemen nire kondizinoetan inok eskatuko eutsunik, nik orain eskatuko deusudana. -Zer ba? -Hara, nire Bikario esperientzian lur jota ikusi ditut baserri aldeko herri txikiak; hor bai dala gata bide barriak egitea! Ni neu be baserri semea naz, eta esperientzia hori egin gura dot; jakin gura dot zenbat emon leiken baserri aldeko kristau-lurrak. Gaur arte zenbat bokazino eta kristau zintzo emon dituan. Durangaldeko parroki txiki bi hartuko neukez pozik, neure erlijioso alkartearengandik hur samar geldituz: Mañaria eta Izurtza. Baina honetarako kondizino antzeko bat eskatzen deusot: Andereino laika bi parrokietako ardura batzuk euren kontura hartuta, izendapen eta guzti, Mañariako abade etxean biziteko aukeraz. “Holangorik orain arte ez dala egin eta ez dala errez izango” erantzun eustan. “Dana dala, ea konpontzen dogun”. Bai horixe konpondu. Baina berari eskatu neutson parroki bietan, domeka batean, meza emonaz batera, herriaren aurrean laika bien aurkezpena egin eta bakotxari bere ardurapeko arloa ezartea ondo legokela: Maria Anjeles Mañarian eta Mila Izurtzan. Eta pozik etorri jakun erabagitako egun batean Luis Maria

Gotzaina eta Mañarian Maria Anjeles Angoitia eta Izurtzan Mila Egiguren andereinoak izendatu ebazan ekintza batzuen arduradun zuzenak: Mañariako abadetxean bizi eta hileko diru laguntza txikiren bat emonaz. Eta holan egin eban Larrea Gotzainak jentaurrean eta ondoren saloian bide barriak zabalago eta zehatzago argituz.

BASERRI ALDEKO PASTORAL ESPERIENTZIA



Laika bi honeen esperientzia lehenengoa izanik, komenigarri izan leiteke zehatzako jarrea, eleizbide barriak martxan jarteko be. Horretarako, betikoa: langileak trebetu behar ziran. Eta Burgos-Kastilla aldean indarrean egoan NEKAZAL ALDEKO KRISTAU MOBIMENTUA ikustera joan ginan. Araba eta Burgos aldeko abade batzuek egin nebazan hartuemonak eta eurakaz alkartu ginan gure herri bietako laiko batzuek hainbat aldiz joan ginan Majadaonda Madril-go Dominikarren Etxera, Estatuko jente talde jator bategaz Mobimentu honen espirituz jabetzeko. Eurak beste giro batean jokutzen eben, baina abade eta laiko kokoteraino arloan sartuta. Guk hareen giroa eta jokabideak aztertu eta geuganatu genduzan, gure Euskal Herriko parroki txikietarako aukerak eta ahalmenak gogoan hartuz. Hona hemen, batez ere Mañarian, indarrean jarri genduzan pastoral arlo barriak.

- a) Gurasoakaz hasi ginan: eurak argitu eta eurakaz batera zer egin gura genduan agertuz. Behingoan jarri ziran martxan, baita eurakaz batera, eurerariko laukote bat aukeratu be bai, GURASO ALKARTEA antolatu eta ofizilizatzeko asmoz. Behar ziran paperak bete, eurerariko laukote bat hartu eta Bilboko Euskal Jaurlaritzara lagundu neutsen. Laika arduradunak hartu eben eurei laguntzeko ardura hori hasieratik.
- b) Guraso Alkartearen laguntzaz eta izenean herriko umeakaz dantza talde bat sortu genduan, geroago gazteakaz eta geroago nagusiakaz. Jakina, horretarako Otxandion geure laguntzaz Sendotza hartu eban mutil jator bat prestau jakun zapatuero ensaiatzen etorteko.
- c) Horregaz batera samar, herriko umeakaz “Kirikiño” kantari korala sortu genduan; horretarako be Durangoko neska gazte bat lortu genduan, hau be Friasko udalekuko frutua. Aspaldion gehienak ama eginda egonik ere, aurrera jarraitzen dabe. Euron ekitaldi bi oso gogoangarriak daukez: Arrateko Irratiatik luzaroan kantuz poztu ebezan baztarrak. Oraindik gaur be, 35 urte geroago jarraitzen dabe baztarrak alaituz. Eta bigarrena, Begoñako Udabarriko ekintzetan eta herriz herriko kantaldietan partekide dira. Haundiena: urte batean Vienako kantaldi famatuetan partekide izan ziran.



1

Ilobak

Mañariako umeak gara,
danoi bihotzez egunon!
Batez be, gaixo zagozen danoi,
gure aiton eta amon.
Jaso iloben laztan beroak,
izan bake ta zorion!
Zuen ondoan lagun egiten
nahi geunke apur bat egon.

2

Aitita/amonak

Bai pozgarria, ilobatxoak,
zuen goizeko agurra!
Pozez beterik jartzen dozue
gaixoen bihotz samurra.
Zuek uxatzen dozue gure
bakardadeko bildurra,
zuen laztanez egun luzea
egiten jaku laburra.

3

Ilobak

Hortxe zagoze ohe gainean
edo sukaldean penaz,
jardun ta jardun, fedez
nahastatuz
aienak "Aitiarenaz".
Kurutz astuna aldapan gora
daroazue kemenaz;
arindu gura deusuegu gaur
abestirik politenaz.

4

Aitita/amamak

Bizitza bera da, umetxoak,
liburu eta eskola,
zuen aitamen guraso gara,
ez ahaztu gero inola.
Pozik ikusten dogu zuengan
gaztetzen gure odola,
gure negarra zeuengan dago
irriparra dariola.

5

Ilobak

Gora aititak, gora amamak
ta gaixo maitagarriak;
ezti tanta bat gozatutzeko
gaur zuen bihotz larriak.
Negu latzari jarraitzen deutso
loratsu udabarriak;
ahaleginduko gara betetzen
zuen gogo egarriak.

6

Aitita/amamak

Eskerrik asko, iloba maite,
mosu bat danoi batera,
nahi gendukena, zuen bitartez,
beti jarraitu aurrera.
Zaindu eizuez aitita-amamen
sinismena ta euskera;
orain ta beti zintzo jokatuz
Jaungoikoaren legera

7

Ilobak

Zuen ondoan jaso ditugu
makina bat ikastaro,
zer ikasirik asko dogu-ta,
egon hementxe luzaro.
Gure Jainkoak emon beizue
poz eta grazi oparo,
aitita-amamak, bihar arte ta
egun eder bat igaro!!!

- d) Baserri aldean asko be asko dira santuen baselizatxoak. Gehienetan egoera lastimagarrian. Joan-barritan, San Lorentzo egunez mezarara joan eta eguzki bero bat bai; San Lorentzok parrilan baino gehiago. Mezea amaitu zanean, auzoko gizon eta gazteei deia luzatu neutsen. “Hau holan ez dago ondo, nik ezin neike gehiago hemen mezarik holan emon. Gura badozue, auzotar gizon eta gazteok gelditu eleizan, erabagiak hartzeko”. Pozik baserritarrok. “Begira, esan neutsen, ez daukazue nik esan beharrik. Gura badozue neuk lagunduko deusuet alkatearengana asteko edozein egunetan, zuetariko lagun batzuekaz”. Alkateak, gaztea eta gogotsua izan be bera: “Dirurik ez, baina konpontzeko behar diran burdi, tresna, harri eta zementoa udalaren kontura agindu euskuzan. Hasi baziran hasi ziran, hurrengo San Lorentzo egunerako oso dotore barriztuta ermitatxoa. Ez bakarrik San Lorentzo, beste hiru-lau ermita be ez egozan konforme eurak aparte izteaz. Eurengana be hurreratu ziran gizon eta gazte talde hori eta urte gitxitan ermita danak geratu ziran bata baino bestea ikusgarriago. Gaur egun talde bat sortu dabe euren artean eta urtero egiten dabe joan-etorri bat Errioxa aldera, indar barriak hartzeko edo...



Gauza ederra auzolanean
alkartzea auzotarrak;
danen onari begiratuta,
zelan konpondu baztarrak.
Geureak dira, ta beste barik,
egin ditugu beharrak,
ondo gogoan izango dabez
gure lagun zerutarrak.

- e) Herriko Nagusiak euren buruen eta eskubideen jabe bihurtu ziran. Arduradun taldetxoa osatu ondoren, Bilboko Eusko Jaurlaritzara lagundu neutsen Alkartea ofizialki onartua izan zedin. Herriko plazan leku polita prestau eutsen herriak. Euretariko Arduradun bi lagun hartuta, lehenengo Otxandion eta gero Ubidean eskeindu geuntsen laguntza bertako Nagusiei.

- f) Otxandioko parrokiari laguntza berezi bat eskeinu geuntson: Laika arduradun biak bertako gazteei sendotza sakramentua hartzeko prestakuntza eskeintzen eutsen bitartean, nik Gurasoen heziketa jardunalditxoa izaten neban.
- g) Garaiko parrokian egoan abadea be, ezinduta gelditu zanean, neuk hartu behar izan neban 8 urtean bertako eleiz-ardura eta Mila laika arduradunak, ikastolako lanaz gainera, gazteen sendotzarako prestakuntza hartu eban, Izurtzako parrokiaren ardurez batera.
- h) Bost urterako hartu genduan ardura hau eta 23 urte emon genduzan bertan. Benetan harritzekoak izan ziran bai Mañarian eta bai Izurtzan opatu euskuezan eskerrona eta zorion besarkadak azken egunean.
- i) Laika bi parroki txiki bietako arduradun izanda, gainerakoa niretzat gitxitxo zala-ta, Gotzainak beste txorta astun bat bota eustan lepora: "Baserri aldeko Bilboko Eleizbarrutiko Pastoral Idazkaritzako Arduradun".

VASI GURE ERRUSIAKO LAGUNA





Badot beste esperientzi bat ere. Orain emeretzi urte etorri zan Durango aldera ume pila bat Errusiatik. Bost urteko mutiko bat geuganatu genduan.: VASI. 18 urtera arte orfanatoan sartu eben, amagaz bizitzez ez eukalako. Aita nor danik ere ez. Holako gixajo batek halako etorkizuna! Jaiotzaz Siveriarra zan.

Gure artera etorri barritan alkarren berbetarik ez genduan ulertzen. Baina Vasi, mutiko argia zanez, laster baten ikasi eban euskera. Bestalde egurrez eta maitasun barik hezitako umea zan, eta une askotan ere sarri egoskor jartzen zan. Mañariako abade-etxean bizi ziran Mila eta Maria Anjeles andereno eta eleiz arduradunen esku. Behingoan sartu zan herriko bizitzan eta hor hartu eben ostatur. Aitaren hutsunea betetzearren edo, sarri nire ondoan jesarrita edo jolasean. Behar ebanerako, laster haten “papi” deadarka, beragaz batera guztiok ginan familia bereko senideak. 18 urte zigorpean egon dan gazte batek amets egiten dau: Handik urte batzuetara aske izango dala, gura dauana egiteko ere. Gura eban karrera bat egitea ere bai; baeukan nok lagundu, bere adineko bati tokatzen jakon bati. Baina lokarri estuegia zan hainbeste urte hain estu lotuta egon ondoren. Dana itzi eban, Moskura iges egin eban beste zerualde baten bila. Bakarrik kale gorrian hasi zan hainbat aukera probatzen. Azken baten, dantza-joko baten gidari lez egin zan. Eta...hor dihardu, Gabonaldian egonalditxo bat egin gura ei dau gure artean. Hogeita lau urte beteta, karreran dabil, neskaren bategaz batu ei da. Bera izatez ortodoxoa da.

Zer ikasi dodan Vasigandik? Asko, zigorpean hezi eta hazitako gazteak asko daki, ordu larri askotatik ibilita dago. Batez ere, gura barik, familia bateko esperientzia barik bizi eta hazi danak asko eta gorriak eta baltzak ikusi behar ditu. Egia esan, bere familia antzekoa Mañariako abade etxeko bizitza izan zan. Gaur ere harek badauko Mañarian lagunik asko. Etorri barritan, Mañariako jentea era eta eritxi askotarikoak alkartuta, Gabon bezperako kankak etxerik etxe kantatzen joan behar ebela eta Vasi laster prestau jaken, baserritar jantzita, txapel eta guzti,

Jesus umea lez etxerik etxe dabilela, limosnatxo baten eske Jesusen izenean.
Horreek bai benetako Gabonak! Jaunak lagunduko al deutso bidean zehar gizon
egiten; ahalmenak badaukaz, nok lagundu ere bai.

Gogotan dodala Vasi
ez dakit gaur nundik hasi.
Jainkoak daki nundik datorren,
edo nundik jakun jatsi...
Jesusek lagun egin deiola
ta bidea irakatsi.

Gora Vasi eta zorion
dana dala, izan gizon.
Jaunagaz izan hartuemona
Berak zagizala jagon,
Itxaropenez lortuko dozu,
baina ez begira egon.

Aita amarik bakoak
behar ditu ordezkkoak.
Maitasunaren beso-artean
ahal dira ezinezkoak:
etxe bateko senide dira
Euskadi ta Moskukoak.

Gehiago ezin kabidu
alperrik luze jarraitu.
Maitasunaren beso-artean
ekin ta ezin amaitu;
papel guztiak baltzitu arren
ezinak isiltzen gaitu.

MAÑARI ETA IZURTZAKO AGURRA

Alkate jaunak eskeini deusku
Herriaren oparia;
mosu emonaz, onartzen dogu,
besarkatuz Mañaria.

Maitasuna ta esker ona da
gaur zuen ezaugarria;
Ikusten danez, gure Mañari
ez da bakarrik harria.

Ondo eginak gogoan hartu
ta txarto eginak borra;
azken orduan haxe da danok
alkarrekin dogun zorra





Izurtza dauka izena,
bere txikian polita dozu.
Bizkaian ez da azkena.
Hogei urtetik gora
ondo eta gustora,
bertan bizi izan nazana:
nire agurraz hartu egizu
besarkada beroena.

Hainbeste urte bizi ondoren
famili baten moduan,
bihotza minez sentitzen dogu
bananduteko orduan.
Agur Izurtza maite,
Jaunagaz geldi zaitte
kristau batasun estuan;
zoriona ta bakea dagoz
hori dagoan lekuan.

MEZEA “a 100 POR HORA” EMON NEBAN



Julian Olazabalaga Larrabetzuko abadea, Markinaldean eta Eleizbarrutia osoan hainbeste lantoki eta zerbitzu berezi indarrean ipini ebazana lagun haundia neban. Markinaldeari beharleku barriak martxan ipinitakoa, inguruko gaztediarentzat eleiz ikastegi profesionala jaso eban eta sekulako eragina izan eban Markinalde osoan. Jubilatuz zanean, Eleizbarrutian jubilatuen alde gorputz eta arima jarri zan. Bizkaia aldean, batez be baserri aldean, bera izan zan herri gehienetan Jubilatuen Mobimentua martxan jarri ebana, baserri aldeko jentea mila lekuetara eroan ebana, baztarretan egozan ekintza ikusgarriak erakutsiz.

Bestalde baserrijentea askatu eta baztar guztietara mobidu ebana bera izan da. Ekintza horretarako be harrapatu ninduan eta gogoan gehien gelditu jatana hauxe

izan zan: Uste gitxien nebanean, Eskorialetik Benidorrera bidean, autobusean bertan mezea emoten jarri ninduala. Harrezkero esan ahal dot: behin behintzat emon dodala mezea “a 100 por hora”. Mezea edo... Sasoi horretan, Añoveros gotzaina barriro gogoratuz, eskutitz xeibre bat eskuratu jakon. Zer izango, eta Felix Gallastegi abadearen proposamena: Benidorren 200 plazako hotel bategaz jabetu gura leukela, Eroski merkatoriaren hasierako laguntzaz. Berak bertan jarraituko leukela, etxeko beharrak eginez eta eleizakoak eskeinduz. Neu eskeindu nintxakon gotzainari arlo barri hori martxan ipinteko. Felix eta beste hiru lagun joan ginan eta gure poza, halako etxea Bizkai aldeko baserri jentearentzat, egunero euskeraz meza eta guzti, nun eta Benidorren bideratuta. Hainbeste urtez gero eta gehiagora joan zan eleiz zerbitzu hori, harik eta baserri jenteak, beste barik, baztarretako bideak bere kontura ezagutu eta lotsak galdu arte.

BIZKAIA IRRATIA

Ni laguntzen hasi baino lehentxoago baziharduan Bizkaia Irratiak. Julian Olazabalaga izan zan sortzaile, eragile eta bultzagile sutua. Laster batean jo eban nigana eta bion artean jorratzen genduzan baztarrak. Baita domekeroko KRISTAU GAUR ETA HEMEN domekeroko kristau jardunaldia be. Julian izten joan zan eta neure eskuetan gelditu zan ardura osoa. Domekero orduerdi batean jardun izan dot, Mila Egiguren lagun hartuta, Bibliako atalak, otoitzalditxoak eta abar irakurteko. Nire ustez, Bizkaiako edozein eleizetan baino kristau gehiago izaten dogu mezako hiru irakurgaiak landu eta gaurko bizigarriz betetzen, beti be bertso txo batagaz apainduz. 2015ko azaroaren 6an, Boroako jatetxean Bizkaia Irratiako langileok, Mario Izeta Gotzaina eta irratiako arduradun guztiak buru genduzala, eskerronezko bazkariaz berotu euskuezan geure gorputz-gogoak aurrera jarraitzeko. Milari eta niri makila dotore bana oparitu euskun Gotzainak, Mario Izeta jaunak, aurrera jarraitzeko amore emonez. 1988an hasita, gaur ere jarraitzen dogu arlo horretan auskalo noiz arte, noren esku itzi agertu arte edo...



Agur Bizkaia irratia
gure bizi-iturria,
bizitza batu eta zabaldu,
hau bai jardun pozgarria!
Bizkaia osoan alkarbizitza
lotzen dozun lokarria.

Gaur alkarturik Boroan,
gotzaina ere ondoan;
alkarlanean batzen garanok
alkarri eskua emon,
eta bihotzez gotzain jaunari
milaka eskerrak emon.

URTEAN ZEHAR EGUNEROKO SANTUEN EGUNAK

Komunikabideak berehala joan ziran ugaritzen, bai Eleizbarruti mailan eta bai udalerrri nagusien aldetik be. Lehenengo Bizkaia Irratiatik eta geroago Durangoko telebistatik eta Irratiatik ekin neutson arazo honi hiru-lau urtetan. Jakina, euskeraz ez egoan holango santuen bizitzako libururik eta erderazkoetatik aukeratu behar izan nebazan ezagunenak gure herrialdean. Izan be, santuen bizitza laburrean kontatu ondoren, hainbeste antzeko santu ezezagun sartu daitekez eta sartzen nebazan; eta uste dogun baino kristau gehiagok bai pozik zaintzen ebela “santuen bizitza” ordua. Eguneroko santuen zintzotasuna, Jesusen Ebanjelioaren argitan norentzat ez da jarraipide? Liburuz kristau jakintsu asko dira argi eta jakitunak eta oso ondo dago. Baina bestelakoak dira kristau apal izenbakoak, beste askorentzat euren bizitza apal garbian testigu diranak. Eta gaur egun, testiguak dira falta jakuzanak Eleizan, Frantzisko Aita Santuak dinoskunez. Gehiago oraindik: “Sinismena amamak emoten dau eta dotrinea teologoak”, dinosku. Berak behintzat esperientzia horixe dauka bere amama Errosagandik: “Nire bokazinoa amamari zor deutsot”. Gaur egun ere, doan lekura doala, leku guztietara aldean daroa ume txikitako argazkia, amamaren altzoan, esku bategaz bihotzaren kontrara estutuz eta besteagaz Errosarioko garaunak errepatatuz.

Danok dakigu gure Balendin
Elorriotarra zala,
dantzari trebe, pelotari ta
bertsotan be ez makala.
Jainkoaz baizen bere herriaz
gizon zintzo ta leiala,
Bizkaian behar gendun santua
euskaldun ta naturala.

Goiko Jauna ta lurreko ama
maite ebazan batera,
biakaz bertsoz jarduten eban
seme on baten antzera.
Maitasun baten lotzen ebazan
sinismena ta euskera,
ez eban bata besteagaitik
zertan bota baztarrera.





Agate deuna ospatzen dogu
martiri eta birjina,
bular ta odol emoteraino
Jesusen alde egina.
Euskalerrria dozu, Agate,
zure maitale txit fina,
bakez ta pozik bizi gaitazan
egiguzu ahalegina.

BIZIAN GORA JUBILATUEN ALDEKO MOBIMENTUA



Eta zetan gelditu zan Eleizbarrutiko baserri aldeko Idazkaritzako Arduradun kargua? Giro horretan heldu jatan beste aukera pozgarri bat: Bizian Gora pensionista eta Jubilatuen Eleiz Mobimentua. 1952an Frantzian sortu zan, handik eta urte batzuetara Kataluniara zabaldu zan eta ondoren Madrilerara. Urte bete barru Bilbora heldu jakun. Bizkaiko lagun bigaz joan zan Julian horiartzelona Mobimentu barri honen hazur-maminak ezagutzera.

Eta beste barik, neu jausi nintzan sarean: Eta 1997tik gora, harrezkero Bizian Gora Eleizbarrutiko Nagusien Mobimentuko euskal alderdiko kontsiliario naz. Gotzainaren deia hartu nebanean, kondizino bigaz baietza emon neutson: Bizkaiko euskal alderdian eta euskeraz jardungo nebala. Eta eskabide estimagarriena: Mañaria eta Itzurtzako arloan ondoan izan neban Mila Egiguren Mobimentu horren koordinatzaile izango zana, Gotzaitegiaren kontura, ikastolako lanetik liberatuta. Jakina, Mobimentua laikala izanik, laika bat ardura horregaz jartea aukera onuragarria izan zan.

Berehala hasi nintzan herriz herri jubilatutako taldeak antolatzen. Ez da lan erreza izan; jakina, jubilatutako ez egozan taldeko lanetan ohituta, euskeraz berba bai, baina irakurten erderaz baino txarrago...Eleizgizonak be ez egozan jubilatuentzat aparteko laguntzarik ipinteko gogoz. Baina ni temati: besteak bai eta gu euskaldunok ez? Aintxinako Misino Santuetan niri entzundakoak ziran gehienak. Ezaguna nintxak. Baina hurrunetik hurrunera, eta ez mahai baten inguruan, Biblia eta paperak eskuetan hartuta; entzun eta erantzun, aita baten etxeko mahaian lez. Orain asko ez dala arte, dana autorlekuan eta isilean erabilitako kontu asko orain danen aurrean? Baina, egia esan, ekin eta eragin, nire apostolutzako ekintzan izandako esperientziarik gozo eta sakonena hauze izan da. Behar bada neure adineko jente maitagarria inguratu jatalako. Fedeko gauzak isilean erabiltekoak eta abadeagaz kontuz konpontzekoak dirala? Mobimentu honek dituan helburuak gogoratzea baino ez dago. Hiru helburu ditu:

Adiskidetasuna. Holangorik ez da sekulan eleizetan erabili: kristau garalako adiskide izan? Bai horixe, ez bakarrik adiskide, Jesus maisuak dinoskunez eta lehenengo kristauen alkartean lez, “senide” berbea erabilten zan kristauen artean. Jesus mahaiburu dogula, beste guztiok Beragaz mahaikide. Hamabostero batzarrak eginez, astiro eta pazientziz euren martxa onartuz, joaten dira aurrera. Mahaitxo baten inguruan batzarra otoitz giroan egiten da; mahai gainean Biblia zabalik eta argitxo bat biztuta diralarik, Jesus Jaunaren presentzia bereziaren ezaugarritzat. Jaunaren Berbea txandaka irakurten dabe, ondorengo domekako Ebanjelioko atala. Bakotxak dauka bere txostena eskuarte, Jaunaren Berbea etxean hobeto ulertzeko, bihotzeko janari bihurtuz. Taldeak hamabostero egiten dau batzarra. Talde bakotxa dozenakoa da gitxi gorabehera. Batzarkideak astiro astiro hasten dira batzarrean parte hartzen, alkarri euren eritxiak agertuz eta besteenak entzunez. Adisketasun hau asko sendotzen joaten da.

Taldeetako arduradunak: talde bakotxean bi izan ohi dira, hilero izaten dabe egun osoko batzarra 10tik arratsaldeko 5ak arte. Baita urtero gogoeta aste bi osoak beste lagun guztiakaz batera: Arantzazun, Angoston edo Santanderko Presas gure etxean. 30 taldeetatik gora dira. Agirian dagoanez, hasieran be zaharrak izanik, handik urte batzuetara izten joan behar. Ikustekoa da: hasten dabenak oso gitxi izanik dabe alkarrea, ahal izanik. Hiletetan be hainbeste inguruko lagun batzen jakez laguntzen. Senide sentitzen dira-ta...

Esperientzia hau Gipuzkoara eta Naparroara be zabaldu izan dot, baina bertan laguntza gitxi izanik, bertan behera galtzen joan dira gehienak.

Kondizino onean dagozan aitita-amamak bestelango gehigarriak be behar dabez, hainbeste errosario errezatuta gero, adiskidetasun giroko esperientzia hau bete-betean jatorke. Esperientzia alaia, itxaropentsua. Giroa sortzeko lagungarri asko erabili ohi doguz: Bertsoak ehundaka moldatu dodaz eurentzat, batzuk sakonera doazenak eta beste batzuk irriparre eragiteko. Azalpen honetan ikusiko dozunez, tarteka-marteka irakurriz, ohartuko zara beste mundukoak ez dirala, baina euskaldunentzat aproposkoak eta barrurako bideak edegiteko egokiak. Bertso gehienak bertso doinu ezagunez datoz; beste batzuk herri abestien edo eleiz kantuen doinua erabiliz. Batzar, sakramentu, ospakizun eta abar danetarikoak dozuz liburuetan.

Hamabi dira eurentzat, batez ere, argitaratu dodazan liburuak. Liburuak, -liburuxkak dira-, letra haundiz eta errezkadetan tarte haundia itzita, ahal dala, errezkada laburretan idatzita. Horregaitik euskera herrikoia eta erreza darabilt, nahizta noizean behin jakitunentzat akats batzuk izan. Txistek be parrastadaka erabilten doguz. Urte askotako bizitzako jakituria aldean izanik, pasadizu eta xeibrekeri asko jazo jakez eta. Urte batzuk esperientzi honetan jarraitu eta gero, txitean-pitean urteten deutse lagunartean: “Nok esango eustan honenbesteraino helduko nintzala neure bizitzan”.

a) Sinismena gaurkotzea: Izan, zer da “sinismena gaurkotzea”? Sinismena beti ez da bardina ala? Bere izatez bai, baina ingurugiroa, norbere adina, pentsakera eta ohiturak zelangoak diran, eragin ikaragarria dauke, sinismena ulertu, bizi eta iragarteko orduan. Atitamama honeek beti izan dira fededun zintzoak, baina beste inguru- giro batean hazi eta hezitakoak dira. Praile nazanez, ondo dakit neure bizitzako esperientziatik, umetatik gaur artekoari atalka begiratzuz.

b) . Gaur egun euren seme-alabak eta auzotarren artean beste pentsakera eta ohitura ezbardinak daukez. Lehen etxe guztietan errosarioa, hileko lehenengo barikuak, Luistarrak eta Mariaren alabak eta abar... Diranak eta ezdiranak, “pekatuak” sarri autortu...bada ezpadan...Seguru sentitzen ziran. Abadeak dinoana egin ezker... Gaur gehiengoa beste bide batetik dabil, honen kontrakoa ez bada be; “jo ta pasa” egiten dabe. Horregaitik gaur norbere barruan behar da argia eta indarra, eta sinismen oinarria. Sinismenaren euskarri abadea barik JESUS GURE JAUNA da. Gaurko bide eta giro barri honek lagungarri bi behar ditu, beste batzuen artean: *Jaunaren Berbea* gidari eta oinarriztat daukan esperientzia eta euskarri beharrezkoa dauan *kristau alkartea*. Bakarreko kristinauak azkenetan dagoz, zaharrok bagoaz eta gazterik ez da agiri; alkartea beharrezko egiten da sinismen bizitza sendotzeko eta barriztatzeko. Holantxe zan lehenengo kristauen artean, senitarteak ziran. Ez da harritzekoa Aita Santua hasieratik deika hastera Vatikanoko plazan etorri barritan: “*Eleizan Jesus falta da*”. Eta zer egiten dogu Jesusik bako Eleizan? Ikusten dana. Halan be, harrituta nago, Bizian Gorari esker, aititama-mak alkartean hartuta, Jaunaren Berbea lagungarri

c) eta guzti hausnartuz, noraino heltzen diran. Neuretzat, egia dinot, euron artean 26 urtetan hartu eta bizi izan dot Jesusegazko hartuemonik beroena eta pozgarriena. Ziur nago, etorkizuneko Eleizeak barriro jo beharko dauala hasierakoaren bideetara. Ohiturakerietatik aterata, Jesus alkartearen erdian sentitzen dauan jokabideetara. Hemen ikusi dot begibistan Jesusek esana: *“Bedeinkatzen zaitut Aita gauza honeek jakitunei ezkutatu eta txikitxoei Zeuk adierazoten deutsezuzala”*.

d) **Apostolutza:** Jesusez beterik dagoanari berez urtetan deutso bere barri emotea halan edo holan. Maitasunaren lege arrunta da. Kristau bizitza jatorra bada, beste barik, bizi barri dan sinismenaren testigu bihurtzen da, bakotxak bere dohaien eta aukeren arabera. Horrez gainera, eurak dira etxean hasita, errezen prestatzen diranak

Eleizako Ospakizunetan eta auzoko eta herriko auzolanetarako gogotsuen prestazen diranak eurak dira parroki askotan.



Bizian Gorak batuta
ondo bizi gara.
Fede batek alkartuta
ondo bizi gara.
*Ondo bizi, on eginez,
zoriontsu gara.*

Jesus Jaunari jarraituz
ondo bizi gara.
Eta urkoa maitatuz
ondo bizi gara.
*Ondo bizi, on eginez,
zoriontsu gara.*


Bizian Gora bidean
ondo bizi gara.
Jesus dogula aurrean
ondo bizi gara.
*Ondo bizi, on eginez,
zoriontsu gara.*

Danok gara adiskide
ondo bizi gara.
Jesukristogan senide
ondo bizi gara.
*Ondo bizi, on eginez,
zoriontsu gara.*

Jesusekin topo egin
ondo bizi gara.
lagun gara alkarrekin
ondo bizi gara.
*Ondo bizi, on eginez,
zoriontsu gara.*

Zer egin ondo dakigu
ondo bizi gara.
Izan Jesusen testigu
ondo bizi gara.
*Ondo bizi, on eginez,
zoriontsu gara.*

NIRE LABAKO OPILAK




Ez naz liburugintzan, beste barik, denpora asko emondakoa. Bizian Gora Mobimentuak, mobimentua dalako, handik-hemendik sortzen diran txosten eta liburu atalak idatzi beharrean aurkitzen naz; eta gai eta ospakizun askotarako bertsoren batzuk tolestu beharrean aurkitu izan naz, Aita Santuak eta beste eleiz maisu batzuen liburu-atalak. Hainbeste urtez zabaldutakoak milaka izango dira. Dana dala, argitaratu dodazanak iturri bitatik atera dodaz: Aita Santuak - zaharrak eta santuak diralako- esperientziz aberastutako irakatsi ederrez beterik datoz. Eta bigarren iturria neure 88 urteko esperientziatik eta bizitzatik sortutakoak. Liburu baktxari hiru-lau errezkada eskeintzen deusodaz; gehiago gura dauzananak liburuan bertan aurkituko ditu. Horra nire "labako opil batzuk:

"KEZKAZ": Euskal Herrian hainbeste urtetan sufridu behar izan dogun zapalketak eta ondorengo sasi-demokraziak aukerarik asko emon deust zirriborro batzuk egiteko. Zenbat maisukeri, zenbat harito-talka, zenbat egi-itxurazko eta guzur nahasteak, zenbat sare ezkutuan... Holango pixka bat argitu eta konpondu nahirik egindakoak. **TXIKI-HAUNDIAK"**: Txiki edo haundi zer

dan, nor dan neurtzen dauana? Jainkoa bakarrik. Jesusen neurrietan txiki zintzo, apal, zerbitzaria da haundiena, eta handi-maundi lez agertzen diran asko, gero bizitzan petral samar batzuk besterik ez. Zaharrok ez dogula lanerako balio, eta goizetik gauera zokondora baztarta itzi. Neurriak euren lekuan ipinteko eta edadetuak “Zahartzaroan ere frutu emoten jarraituko dabe” salmogilearen esanetara, buruak gora jasoten laguntzeko. **“JESUSEGAZ TOPO”**: Errezuetan katigaturik hainbeste urte bizi izan dan jentea, hortik askatu eta Jesus Bera aurrez-aurre esperimendatzea, hau da liburuxka honen asmoa eta gogoia. Honetarako bai behar dala barriro jaiotea, baita Espirituaren laguntza! Ez da harrizkoa: umearoko dotrina eta errezuetatik askatu eta Jesusen sagrario bihurtuta... Esperientzia aberats pozgarri hau zaharren artean gehiago ikusten da liburuen liburu buruak astinduta daukezan askok baino. Ez da harrizkoa Aita Santu honek eta beste teologo maisu famatu askok dinoskuena: “Ikasiak ikasi eta ikusiak ikusi, nire sinismena neure amarena da”. **“BERBEAREN OGIA”**. Urtez urte, kristau esperientzia ere hazten joan behar leuke, giza esperientziaren antzera. Baina lekutan! Jesus agertu jakun argi eta garbi esanez: “Ni naz munduko argia, ogia, egia, bidea...” Galduta euki dogun altxor hori eskuratu behar dogu, Ebanjelioko Jesusen iturritik edanez. Aitita-amama asko dozuz, lagun asko begira eta geldi dagozan artean, handik-hemendik entzuten dabena: “Maritxu, nora zoaz eder galant hori? Iturrira, Bartolo, nahi badozu etorri”. **“ZU ETA NI BOK”**: Errezua barik, alkarrizketa, bertatik bertara, geu baino barrurago bizi jakun Jaunagaz “Zu eta Ni” ka alkarrizketan... Hori da poz eta indar iturri!. Bai zoragarri Jesus bizitzako bidelagun bihurtu jakenak! **“AITITA-AMAMEN JAKITURIA”**: Hasieratik amaieraraino dago bertotan, gure gurasoen gurasoakandik datorren erreteneko ur garbi gozoz beterikoa. Horregaz batera geure bizitzako eskolatik ateratakoa gehitu eta... hau bai benetako jakituria. Zientzia gitxi, baina jakituri asko...

“SALMOAK OTOITZ-LIBURUA”: Horra beste ahalegin bat nire aitita eta amama zaharren alde: Testamentu Zaharreko eta Barriko otoizlarien Jainkoagazko sentimentuak eta bizikizunak geuganatzuz eta gaurkotuz. Jakina, hainbeste gizaldietako kultur eta ingurumarien gehigarri askotatik garbituz. Bizian Gorako amama batek esan eustan: “Hau da ezti-potea eskeni deuskuzuna”!. Zaharren mailara egokituta, bai euskeraz eta bai berbakeraz. **“PARABOLAK”**: Jesusen Ebanjelioko parabolak bai aberatsak eta ulerterrezak. Egirik askon eta aberatsenak erakusterakoan, beti erabilten dau parabolaren bat. Gaurkorako ere balio dabe, betiko bizi-esperientziatzko hazurrak gaurko maminez jantziak. **“ISO-NAHIZ ARRE, EGIZU BARRE”**. Bai, egin barre, bizitzako alderdi barregarriak ere geureak dira, zaindu beharrezko alderdia gainera. Frantzisko Aita Santuak dinoskunez, kristau alaiak behar ditu gaur Eleizeak, Jesusen pozezko usain gozoa baztarretan zabaldu dagien. Gure artean ez da egundo falta bertsoa, txistea eta kantu zaharren bat. Izan ere, zahartzaroa ez da alperrik erdilotan emoteko denporea, bizitzako azken esprina joteko aukera baino.



“JAINKOAK BEDEINKA GAIZALA”. Bizian Gorako aitita-amama banaka bat bateotik datorkion abadesunaz jabetu da, bizitzako arlo askotan, kristauen abadetza nahiko da baztarrak bedeinka-tzeko; antxinatik gure baserrietan labatik atera-barritan ogi ederra, gainean kurutze bat eginaz, mahaikideei banatzen eutsen. Jaungoikoaren bedeinkapena eskatzea besterik ez da. Klerikalismoak beragandu izan dau, beste laikoen esparru asko lez, eta murriztu otoizkera hau. Hor dozuz liburuan bizitzako hainbeste arloen gainera aititaren edo amamaren bedeinkapena eskatzeko otoitzalditxo.

“AITA MARTZEL BERTSOLARI” Hamaika bertso zabaldu izan ditut aspaldion era guztietarikoak. Izan ere, bertsoa da gure Herrian egoerak gozatzeko eta txalogarri bihurtzeko aukerakoena. Nire misinoetan ia hasieratik erabili izan dot bertsoa, jentea erakarteko eta gozatuta bialtzeko. Eta ez deust inok harrikadarik bota, eskerrak emon baino. Neure abadetzako 75. urtean ospakizun bat antolatu eben Orueko Alkarteak eta herritar batzuk. Hor dira egindako guztietak banaka bat. Bizian Gora Mobimentuak atera deustaz pila bat kolkotik . Eurai eskerrak!.

PRAILE ALKARTEAK ETA HERRIAK BATERAKO OMENALDIA

Eta zelan pasatzen dan denporia! Denporea hor gelditzen da besteentzat, norbera da aurrera doana denporan zehar. 75 urte bete nebazala eta, gure Aita Ferminek eta beste batzuk oparitxo bat egin behar eustela erabagi eben: Nire bizitzako umore aldietan argitara-

tutako bertsoak liburu batean batu eta argitaratzea. Danak liburu batean batzerik ez dago. Onentxoena aukeratuta be, nahiko liburu astuna da. Nire ezkutuan egin ebezan prestakizunak eta 200 bat lagun batu ziran bariku batean Orueko batzarleku ederrean. Zer soinu, testigantza eta opari! Hainbeste testigantza izan ziran, danetarikoak.



Aixkide maiteok, entzun:
Holangorik ez inun!
Buru-bihotzak ezin gehiago
Eskerrak emonez jardun;
Anai-arrebok, zeuok zaree
gaur benetako TXAPELDUN.

MUNDU OSOARI BEGIRA:

REDENCIÓN

Badira ekintza batzuek itxura batean errezak eta laburrak. Esaterako nire ekintza askoren artean, isileko eta ezkutuko lan bik eroan deuste astirik gehien: REDENCIÓN Deustuko San Felizisimoren aldizkariak. 70 urte izango dira hilero zortziko edo hamarreko bertso sail bat eskeintzen dodala. Gehien bat, aldizkari hau jente apalak eta familia girokoak hartzen dabe. Nire laguntza egitez laburra, denporaz luzea. San Felizisimo dau zaindari eta oraintsutik Aita Patxi lagun. Halako lagun pareak alkatu dira gaixo eta ezinduen alde. Aldizkariaren bidez laguntzarik asko zabalduko dabe baztarretan.

BIDEAN.NET WEBGUNEAK

Hona beste lan bat ezkutuko eta luzaroko jarduna eskatzen dauana. Hainbeste zerbitzu zabaltzen dogu lau haizetara euskeraz (bizkaieraz eta batueraz) eta erderaz. Hiru zikloko domeka eta jaiegunetako liturgi osoa dakar, salmoak otoitz giroan landuak, liburu interesgarri banaka bat euskeraz jarrita, milaka eratako otoitz aukeratuak eta beste esku bete zerbitzu landuak. Prestatzea Esteban Aurre adiskidearen esku dago eta Webguneko orrietan egoki eta txukun jartzea Mikel Pereira jatorraren esku. Besteak landu ahala, guztiak euskeratzea - bizkaieraz eta batueraz- neure kontura dago, gehien bat. Andaluziatik eta Bolibiatik, gitxien uste dan lekutik jasoten dabez gure zerbitzu apalak. Sinistu ezinekoak dira korreo elektroniko bidez gure lantxoei emoten jaken zabalkundea. Guk zergaitik ez erabili, aurrerapenak eskuartean ipini deuskuezan komunikabide barriok? Eta hau da nire ekinaren sekretua: gure lana hau da: lurra landu eta hazia erateia; haziera eta frutua Goikoaren esku dagoz. Beioaz lau haizetara gure oparitxoak Jaunaren aintzarako eta askoren onerako!

“KARMELO ETXENAGUSIA” OHOREZKO AITAMENA

Ondo dakigu, ez zara
Euskalzale motela,
ez fededun epela;
Lehendik dozu merezia
Euskaldunen txapela.
Ricardo Blazquez jatorku
Makila ta kapela,
Badator, datorrela;
Berak ta guk zeu zaitugu
“laguntzaile” bezela.



Egindako lanen sari-kontua zahatzaroaren ezaugarria dala dinoe. Beti ez, eta halan balitz ere, eskerronez ondo dator. Ostikadak botaten dabezanak be izaten dira. Irribarre bategaz erantzun eta aurrera. Niri behintzat bihotz eragin pozgarri gehiago sortzen deust onerakoak, txarrerakoak baino. Hona erakutsi bat: 2018. urteko apirilaren 13an Bilboko Atxuriko Dominikarren eleizan, gotzaina eta herri agintariak buru zirala, eskeini euskuen “Karmelo Etxenagusia saria” izenez eleizbarrutian banatzen daben saria: Aurten Jose Anjel Ubieta, Begoña Andonegi eta ni, hirurok izan ginan omenduak eta sarituak. Nireari dagokionez, hona Gotzainak hasierako agurrean esandakoa:

Gotzainaren jardunaldia

Ondo etorriak izan zaiteze gure kultur ondarea dan eleiza honetara. Hartz egindako eleiza honek gizartearen harri bizien maila gogoratzen deusku. Jainkoaren aintzarako eta gizon-emakumeen onerako.

“Con esta mención honorífica queremos recordar a D. Carmelo Etxenagusia, un gigante de la fe y de la cultura vasca. Siempre con su gran humildad y sencillez.

Recordar también con nuestro compromiso en el campo de la cultura vasca.

Gaur hiru omenduko ditugu, baina eurengan hainbat eta hainbaten arpegi eta ahalegina ikusi nahi ditugu. Begoña, Aita Martzel eta Jose Angel Ubieta: Eleizan honeek kulturaren bideetatik emondako pausoen testigu apartak dira. Horrexegaitik agertu nahi deutsegue gure esker ona.

Aita Martzel en su dilatada trayectoria al servicio de la Diócesis ha fomentado la poesía y el bertso en euskera y está entregado al servicio de las personas mayores; es uno de los dinamizadores de Bizian Gora, perteneciente, sobre todo, a las parroquias pequeñas del ambiente euskaldun.

Lo que me llama la atención de estas tres personas que vamos a homenajear es su profunda juventud de espíritu. Estar con ellos es siempre un gozo, porque son personas con ilusión, personas de una profunda sabiduría, que la vida y la experiencia les ha dado, personas que siempre miran al frente con ganas y con pasión. A veces vemos a gente mucho más joven, mucho más apagada. Ciertamente en ellos refleja esa chispa de la juventud, de estar al servicio de la Iglesia y al servicio de los demás. Pozez beterik, eta batez be, esker onez hartu egizuez zorionak, hemen gagozanon besarkada estua eta etorri ezinik gelditu diranen oroimena”.

Aita Martzelek bere kontuak

Agur On Mario Izeta, Bilboko Gotzain agurgarria eta gainerako arduradun eta adiskide guztioi! Nahiko gauza esan dabez nire kontura, baina bakarrik onak. Esaera zaharra da: ez dago arbolarik adar igar bakorik, ezta gizakirik ere hutsegite bakorik. Danakaitik parkamena eskatuz, gaurko ospakizun hau niretzat Jaunari eta zuoi eskerrak emoteko izatea gura dot.

Quisiera que, de mi parte, esta celebración se convirtiera en acción de gracias al Señor que tanto me ha ayudado en tantos años y en tantas actividades. Que Él bendiga la semilla sembrada.

Zerbait osotzeko hiru puntutxo bakarrik.

Lehenengoa: Nire bertso kontu eta kantuen sekretua argitu gura deusuet: Gaztetatik izan dot joera hau. Herriz herri hasi nintzanean, Misino Santuak emoterakoan, pena emoten eusten, batez ere, gizon eta mutilak: egun osoan nekatu ondoren, barriro eleizara etorri behar entzutekoak entzuteko. Orduan triptiko bat atera neban, sermoi ondoren guztiok eguneko bertso bi kantatzeko "Damu dot, Jauna" doinuaz, eta erabilitako gaiari buruz. Entzun eta ikusi barik, ezin da jakin zein pozik abesten genduzan egunero. Buruz be askok ikasi eta etxean eta nunahi sarri kantatuz. Bertsoa beti erabili dot hiletetan, kanposantuan, ezkontzetan, berbaldi guztietan. Alderdi on bi ateraten dodaz bertatik: Euskaldunak pozik entzuten dabela bertsoa, eta eurak parte hartuaz pozago. Eta bertsoan esandakoa hobeto hartzen dabela buruan eta bihotzean. Gainera, amuaren muturrean arrainari ipinten jakon kopautxoak lez dala; bertsoak diralata, jente gehiago alkartzen da eleizan eta pozago.

Un puntito más: Este premio lleva el título: "Karmelo Etxenagusieran saria". Éramos muy amigos Karmelo y servidor. Y todas las veces que nos encontrábamos, me preguntaba: "*Hi Aita Martzel, gordeten dozak egiten dozakan bertsoak?*"; "*Oye Martzel, guardas todos los versos que publicas?*". Nik 1960. urtetik hasita idazten dodaz "Redención" hilerokoan eta Karmelok, antza, etxean hartzen eban "Redención", eta bere amari irakurri eta kantatzen eutsozan bertsoak. Hil zanean maitasun haundiz atera neutsozan berari bertso barriak.



Azken puntutxoa: Karmelo gotzain zala herriz herri joaten zan artzain ikustaldiak egitera. Baserri aldera joaten zanean, beti alkartzen zan Bizian Gorako aitita-amamakaz, eurakaz egoten zan isilik eta entzuten eta adore emoten eutsen! Bisitaren azken mezan beti ohartxo bat: zuek aitita-amamok, ez dakizue zer gauza ederra dan Bizian Gora, sartu zaitezte lenbaitlehen.

Esanak esanda dagoz eta eginak eginda. Eskerrak Jaunari baserriar txiki honegaz hainbeste on egin daualako. Bedeinkatu dagiala ereindako hazia. Bihotzez eskerrak neure anai Pasiotar Nagusiei, nire bizitza guztian arlo honetara zuzendu nauelako. Eskerrak Bilboko gotzainei, beti onartu eta bultzatu nauelako ekintza guztietan. Eskerrak hainbeste laiko zintzoei, 60 urteotan benetan lagundu deustelako mila eratan eta maitasunez. Euren artean bereizten ditut Mila Egiguren eta Maria Angeles Angoitia, azkenengo 40 urtetan hur-hurreko lankide finak eta baliogarriak izan dodazalako.

Eta amaitzeko eta neure betiko ohitura beteaz, bertso koxkor bat, izten badeustazue:

Hau da gaur guztiontzat
pozezko eguna,
maitezko jarduna;
“Karmeloren Sariak”
prestatu deuskuna.
Fedea ta Euskera
gure ondasuna,
euren alde da gaurko
jai ospakizuna;
gogoan zaitugula
KARMELO LAGUNA



OHOREZKO EUSKALTZAIN



Bizitza luzean danetarik sortzen jaku: egun baketsu eta kontsolagarriak eta egun ilun astunak. 2018.eko azaroaren 23an, benetan batzar berezia niretzat: Donostian, Euskaltzaindi osoak ospatu eban batzar orokor berezian, Euskaltzaindia sortu zaneko mendeurrenaren barruan, Ohorezko Euskaltzain izendatu ninduen, lehendik urgazle izanik, Euskaltzain diploma eta Ohorezko Ikurra oparituz. Eskerrik beroenak emonez eta agurtu nituan, bertso labur batez erantzunez:

Arratsaldeon, besarkada bat

Euskaltzaindiko lagunak,

Donostian gaur onartzen gaitu

Euskeraldia egunak.



EGINDAKO BIDEARI BEGIRA



Horra jentearen eskabideari nire erantzuna. Jakina, alderdi onak bakarrik gehien baten agertu dodaz. Hutsegite asko izan ditut, ziur nago, baina zuzenduz joaten ahalegindu naz; besteak Jaunak eta zuek parkatu, arren.

Aurreko ekintza bateko hutsegiteak zuzentzen ahalegindu naz, baina halan be hutsuneak hutsuna. Aintxinekoen esanera, “ez dago adar ihar bako zugaitzik, ezta akats bako gizasemerik”. Huts egiteak ez dira izan nire bizitzan dana pikutara botatzeko hasarrezko atxakirik; burua makurtuz, gogo gehiagoz aurrerantzean hobeto egiteko errazoi bat baino. Ahalegindu naz bideko iztripu-harriakaz lepoko zakua betetzen joan beharrean, harriak bidetik kendu eta aurrera begira jokutzen. Horrez gainera, ekintza barri bat hasi baino lehen, beti jarten izan dodaz horretarako ahalbideak eskuratzea. Lehenengoa, ekintzetan aukera bat egin; ondoren, horretarako behar izan dodan prestakuntza eskuratu esperientzi batzuen bidez; eta dana prest egoanean, biderako behar izan dodazan laguntzak: lankideak eta lanabezak bideratzea.

Eta interesgarriena eta niretzat ezinbestekoa: ekintzetarako lankide zintzo eta lehiatsuak bilatzea. Horregaitik, orain mendi gailurretik begira, lehenengo lekuan agertzen jataz lankide horreek isilean dinostela: “Eta zer egingo zenduan urlia, sandia eta berendia ondoan izan ez bazenduzan”? “Egia hutsa” esanez, EZER BE EZ”!!!. Horregaitik eskerrik beroenak Jaunari eta bideetan lankide izan jatazan

lagun zintzo maite guztiei. Hemen esandakoetatik zerbait gehiago edo hobeto esatekorik ikusten badozue esan mesedez, zeozelan zuzendu edo argitzeko be. Eta azkenik, eskerrik beroenak, batez be, nire Aita Pasiotar anai maitagarriei, hainbeste laguntzaz eta urtez, Euskalerrian Jesus Jaunaren Ebanjelioa iragarten itzi nauelako. Eskerrak nigaz batera hainbeste atzera-aurrera egin daben laikoei, batez ere, Maria Anjeles Angoitia eta Mila Eigureneri, ahal izan daben neurrian parte hartu dabelako “misiño santu” honetan. **ESKERRIK ASKO!!!**

Kontuak kontu, luze doa ta
beharko dogu amaitu,
gitxienez neu, honeek esanda
hustu naz eta nasaitu.
Jakinez ez dot guzurrik esan
besteak zeuok epaitu.
Hau danau Zeuri zor deutsut, Jauna
Zeuk ninduzun aukeratu,
eta bideko arriskuetatik
esku samurrez gidatu:
sarri egin dot pekatu,
Jauna, arren, Zeuk parkatu.
Eskerrak eta ezin deutsut gaur
hauxe besterik eskatu:
Zure soloan nik ereindako
hazia Zeuk bedeinkatu.





Aitaren izenean
nire ahalegina,
Jauna, Zeuk bedeinkatu
nik eskuz egina.
Zeuk osotzen dozu guk
gehiago ezina,
eta geuretzat dana
bion etekina.

Bizian Gorak Aita Martzeleri eskerronez